

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

6. GUTUNA

GUTUN hauek aurkezten dute eonetan zehar jendeak jakiteko irrika izan duen ezagutza; baina ez du jaso bere ezagutza zientifiko mundiala nahikoa ez zelako ulertu ahal izateko. Horrelaxe izan zen 'Jesus' izenarekin Palestinan izan nintzenean; behin eta berriz modu askotara azaldu nuen **EXISTENTZIA UNIBERTSALAREN EGIA**, baina inork ez zuen ulertu.

Zuetako gehienok jakingo duzue, **EZ** naiz une honetan etorri zuei beste erlijio bat, kode moral hobe bat edo gurtu beharreko 'Jainko' berri bat ekartzera. 'Pentsatze positiboa' ere ez dut predikatzen, zuen metafisikoez bezala. Gizatasunez sortutako 'pentsatze positiboak', zeinak behar eta giza nahiak magnetizatzen dizkizuen eta zuen handinahikeriak lortzeko medioa den, indartu baino ez du egiten zuen bulkada egozentrikoa.

Gauza bedeinkatu eta oparo guztiak zure baitan eta bizitzan manifestatuak izanen dira, baldin eta zera honetaz ohartzen bazara:

Unibetso guztia **KONTZIENTZIA UNIBERTSAL** traszendentala dela, ikusgai egina **BERAK** materia era hartzen duenean 'egoaren' jardueraren bidez.

Bide espiritualean zure benetako helburua da 'egoaren' loturatik askatzea, eta **ZERUKO KONTZIENTZIAREKIN** gero eta harreman garbiagoa izatea. **Zure azken helburua BERE nonahikotasuna ezagutzea da, bai zure barnean, bai zure eguneko jardunetan zehar.**

Zure gorenko helburu espirituala da une espiritualki-goratu hartara heltzea, azkenean ohartzen zarenean zure giza gogamena eta desirak guztiz mugatuak direla; eta beraz, inoiz ezin dizute eman esperimentatuko dituzun zoriontasuna eta gauzatzea, egoa lagatzen duzunean eta ZERUKO KONTZIENTZIARA heltzen zarenean *SOIL-SOILIK* eskatuz: **BIDERIK ALTUENA, BIZI UGARIAGOA eta benetako HELBURU espirituala, zeina zerorrek baino ezin duzun bete zure lurreko egoeran.**

Hala ere, ulermen maila altu hori lor dezazun laguntzearren, oraintxe sartuko naiz 'EGOAREN' sorburuei eta funtzioari buruzko xehetasunetan.

Zure munduari begira nagoela, INDAR EGOZENTRIKOAK gobernatutako dimentsioa dakusat. **GAINBEHERA DOAN GAURKO GIZARTEAREN** gauza txar guztiak -zuen arima gabeko hiri erraldoietan- Indar Egozentrikotik irteten dira. Indar hori da zuen planetan ari den jarduera gaizto, gezurti eta oker ororen iturria. Medioak, TB, familiak eta nazioak kontrolatzen ditu. Gerrak sortzen ditu lurbira osoan. Kontzientzia baxuko energien jario gaiztoa sortzen du; zeina Entitate Espiritualik Handienek nabaritzen duten, baina behatzea ikaragarria den.

Oraingo zure kontzientzia, jabegoekiko zaletasunak eta besteekin partekatzeko gaitasun ezak kutsaturik baldin badago, besteen lepotik aberats egiteko moduak landuz, lapurtuz, lanean ardurarik gabe jokatuz edo jasotzen duzun diruagatik lanean onena ez emanez, zakarki ihardetsiz,

marmarka ibiliz, zeure buruari kritikatzera eta sarkasmora jotzea eskainiz, epaituz, arbuiauz, irainduz, etsaikeria, intolerantzia eta gorrotoa sortuz, maiterreak barrena janez, oldartuz, bulkada bortitzak sustatuz, ohostuz, gezurretan jokatzuz, engainuzko harremanak bultzatuz eta bi aldetara jokatzuz, difamatuz; orduan egoak bultzatzen zaitu. Egoa duzu agintean eta nekez ibiliko zara kontzientzia egozentrikoaren jario gaiztoan barrena, *Errealitatea* ikusi ahal izateko.

Horregatik, Ni **GUTUN** hauen bitartekariaren bidez etorri naiz zuri laguntzera, zehatz mehatz uler dezazun zerk lotzen zaituen egungo egoeretara; hots, duela mende bat pentsaezina zen ikara giza gogamenarentzat.

Orain zehatzago azalduko dizut

EGOZENTRISMOA

ZURE SORKUNTZAREN UNEAN, koito edo sexu-elkartzean, zure aitaren kontzientzia bizkarrezurrean zehar igotzean gero eta buru gainerago, tentsioak bere gailurra jo zuen, eta labur-labur zure aitaren kontzientziak **ZERUKO KONTZIENTZIA** ukitu zuen flash bat sortuz, zeina leherketa txiki bat izan baitzen aitik orgasmoa bezala esperimintatu zuena, eta gero bere giza hazian

ZERUKO KONTZIENTZIAREN

bisustura edo injekzio bat eragin zitzaion
zure amaren obuloari bizia emateko.

Emakumearekin elkartzeko uneak eta orgasmo-unean gizonarengan den tentsioaren leherketak, **BIG-BANG** momentua berreraikitzen du; hain zuzen, 'Aita-Ama-Kontzientziaren' **BATASUNA** energia banatuetan lehertu zenean, eta lehendabiziko partikula elektrikoek forma hartu zutenean materia aleatorioarekin batera. Aita Kontzientziak 'jarduera eta **bultzada**' energia hornitu zuen, eta Ama Kontzientziak partikula elektrikoek forma eta substantzia emateko '**atxikidura**' hornitu zuen.

Horiexek dira gizonari eta emakumeari bizia eta forma ematen dieten **OINARRIZKO BULKADAK**.

Nik uler dezazun nahi dut kreazioa ez dela kontzientziaz betetako materiaren '**kreazioa**'.

Kreazioa **OINARRIZKO BULKADEN** forma ikusgaia da; eta elkartuz, forma eta entitate indibidualak egiten dituzte. Eta forma eta entitate horiek guztiek hamaika modutan adierazten dute **OINARRIZKO BULKADEN** fazeta eta konbinaketa ugari. Beraz, **JATORRIZKO BULKADAK** *Errealitatea* dira, zeina zure ikusmenak, entzumenak, usaimenak eta ukimenak baitiote materia '**solidoa**' direla; baina egiaz, indibidualizatutako **KONTZIENTZIA BULKADAK** dira, izan daitezen esperimintatuak, adimentsuki ulertuak eta emozionalki aintzat hartuak. Sorkuntzaren unean giza haziak obuloarekin bat egiten duenean eta parekatzea gertatzen denean, **kontzientzia** maskulinodun kromosomak **kontzientzia** femeninodunekin biltzen dira. Hori, zure aitaren haziaren kontzientzia eta zure amaren obuloaren kontzientziaren arteko batasun fisikoa da, **Zerukoak** bultzatua. Eta horrela, kromosoma maskulinodunaren eta femeninodunaren **kontzientziak** guraso bien ADN genetikoak grabatua darama. Haziaren eta obuloaren arteko batasun fisikoaren unea, sormenaren bi mailatan gauzatzen da. **ZERUKO KONTZIENTZIAREN** ziztada zure **ARIMA** izatera heldu zen, haziaren eta obuloaren **giza kontzientziaren** batasunean haragitua. Fisikoa sortu zen, **Aita - Ama - Bizia Kontzientziaren**

ahalmenak bultzatua, zeinak gobernatu baitzituen zelula kontzienteen **jarduera** eta **batasuna** zure gorputz fisikoaren hazkundera eta mailakako garapena sortuz; eta hori da, hain zuzen ere, ikusgai egindako **Kontzientzia** zure izatearen maila bakoitzean, eta besterik ez.

Zure arimak **Aita --- Ama – BIZIAREN** bortxatugabeko 'gar' (metafora) bat bezala iraun zuen, sakonki txirikordatua honako bulkada fisiko hauetan:

JARDUERAN – ATXIKIDURAN / ALDARAPENEAN

Horiek zure banakotasun eta lur-nortasun bihurtu ziren.

Kontzientzia **bulkada** horiek, '**Aita–Ama Zeruko Kontzientziaren**' **BIZI BULKADA** haraindikoen barnean erantsiak, ardura izan zuten zure kontzientzia fisikoaren sortze prozesuan, eta zure nortasunaren indar bultzatzaile egin ziren. Batera, **Jarduerak eta Atxikidurak** lan egiten zuten zelula kontziente bakoitza eraikitzeke, ADN molekulen kontzientzian gordetako kontzientziaren xehetasunen arabera. Bai nortasuna, bai gorputza, '**Jarduera–Atxikidura/Arbuioaren**' giza bulkada horien produktuak dira. **KONTZIENTZIA UNIBERTSALA espazioan** betiko orekan dirauen bitartean (eta beraz, hautemangaitz **espazio** berean **bibrazio-frekuentzietan**), '**Jarduera–Atxikidura/Arbuioaren**' **lehen bulkadek batera lan egiten dute dimentsio ikusgaien, elektro-magnetismoaren eran agertuz zure zentzumenen aurrean.**

Bai **KONTZIENTZIA UNIBERTSALA**, bai zure arima, espazioan orekaren isiltasunaren eta baretasunaren baitan egoten dira eragotziak izan gabe. Lur kontzientziaren sormenak leku hartzen du espazioaren eta denboraren barnean, eta kontzientzia materializatuaren zenbait bibrazio-frekuentzietan. Hortaz, zuk forma bizia hartzen duzu eta bizitzen jarraitzen duzu bi dimentsioren baitan. Dimentsio bat, **ZERUKO KONTZIENTZIA**, ikusezina da; eta bestea, dimentsio ikusgaia, gizaki bizidunak ulertu edo sentitu egin dezakeen guztia da, harik eta garapen espiritualak giza kontzientziaren bibrazio-frekuentziak maila espiritualera igo arte, eta ulermen-distira bat bere lur-kontzientzian sartu arte. Iluminazio-prozesu hori emeki emeki aurrera egin ahala, igotako giza kontzientziak kontzienteki lan egiten du orduan bai dimentsio **Ikusezinean** bai ikusgaien.

Zenbat eta altuagoak izan kontzientzia indibidualizatuaren bibrazio-frekuentziak, orduan eta altuagoak eta perfektuagoak dira gogamenean sortutako formak; zenbat eta baxuagoak izan bibrazio-frekuentziak, orduan eta banatuagoak dira gogamenean sortutako formak **Maitasunaren Perfekzio Unibertsaletik**, eta gogamen indibidualizatu hori bulkada-egozentrikoak guztiz menperatuta dago.

'**EGOAK**' umekiaren bilakaeraren gaineko kontrola hartzen du, hazia eta obuloa elkartzearen une beretik. Izate txiki berria berehala 'NI' egin zen; eta 'NI' horrek umetokian asetasuna eta asetasuneza sentitzen ditu, konfort edo ondoez sentipenaren arabera eta amari gertatzen zaionaren arabera.

Jaio zinenean, 'sortutako izatearen' jatorrizko ezagutza sakonekin grabaturiko biziraupen-instintoek (zure gorputzaren zelula bizidun bakoitzean ezkutatuak) arnasketa abiatu zuten; eta hutsune emozional batez eta galtze batez jabearazi zintuzten, konfinatzen zintuen umetokiaren erosotasunetik banatzean, zeina orduan sentitu baitzen hutsune bat bezala eta elikaduraren behar fisikoa bezala.

Eta horrela jaio zen zure oihu egozentrikoa.

Negar egiten zenuenean, amaren bularretik edoski egiten zenuen, eta horrek poz handia eman zizun, bai fisikoki bai emozionalki. Zure beharrak guztiz asetuak zirenean, bazenuen aukera loaren baitako oreka-

egoerara itzultzeko.

Oreaktik esnatzen zinenean, segurtasun eza nabaritzen zenuen (oreka orain banatua zegoen ezagutza mentalean eta emozionalean); gogoratzen zenuen amak eta bere esneak zuk behar zenuen segurtasunaren asetasuna ekartzen zizutela, eta horrela berriro negar egiten zenuen. Zure beharrak asetuak ziren.

Eta horrelaxe garatu zen zure **'ego-bulkada'**.

Batzuetan negar egiten zenuen eta gizatasunez erabakitzen zen oraindik ez zela jateko ordua; eta negarrez uzten zintuzten aldi batez. Horrek ulertarazi zizun beharrak beti ez zirela berehala aseak izango, eta egokitu beharko zinatekeela. Edo aukeratzen zenuen haserretzea eta indartsuago negar egitea, edo isilik geratzen zinen. Zure kontzientzian jaiotzean grabatuak zeuden 'ego-bulkadaren' ezaugarrien arabera zen zure erreakzio aukera.

Ego-bulkadaren formetako bat bera ere ezingo litzateke izan, ez kondenatua, ez epaitua. **Egoaren Faktore Sortzailearen** ondorio naturala dira, zeinak **BANAKOTASUNA** bermatzen duen.

Azken **Gutunean** nioenez, **EGOA**

BANAKOTASUNAREN ZAINDARIA da.

Zoriontsua izan zaitez behar duzunagatik negar egiteko, edo tristetzen zaituenagatik arbuiatzeko duzun bulkada hori izango ez bazenu, linbo huts batean egongo zinateke.

Arriskuan egonez gero korrika irtengo ez bazina edo laguntzarik eskatuko ez bazenu, hil egin zintezke.

Jaiotzean janaria 'eskatzeko' negar egin ez bazenu, hil egin zintezkeen gosez.

Esnea hartzean gozatu izan ez bazenu, eta amultsuki amagana hurbildu ez bazina, beharbada inoiz ez zenuen garatuko harekin elkartzearen hurbiltze amultsua.

EGOAREN BULKADARIK gabe ez legoke sortzerik, ez indibidualitaterik, ez beharren asetasunik, ez babesik, ez erantzuteko berotasunik, ezta giza maitasunik ere.

EGOAREN BULKADARIK gabe ez legoke burufentsarik, ez burubabesik, ezta biziraupenik ere.

Hala ere, **BULKADA EGOZENTRIKOA**–indibiduoaren oinarritzko **'NI-A'**, **BURUASETASUNAREN** eta **BIZIRAUPENAREN** beharrerako baino ez dago grabatua.

Hurtzaroon, honako hauek gobernatzen dute egoaren **'NI-A'**: Gustuko duzunak eta ez duzunak, desirek, nahi ez duzuna arbuiatzeak, eta zirrara eta sentimenduak etengabe errepikatzearekin sortzen diren ohiturek gobernatzen dute. Ohitura txarrak, 'egoak' esperientzia pertsonalei eta inguruari ematen dizkien erantzun onartezinen forman osatzen dira, eta horiek grabatu egiten dira gogamen inkontzientean edo subkontzientean eta ezkutuan geratzen dira. Hala ere, oldarka ateratzen dira jokabide patroia errepikatuetan, aurreko inguruabarren eta jokabideen oroimenak gogamenera inkontzienteki ekartzen dituenen.

Dena dela, gogamen subkontzientea eta gogamen kontzientea batera hasten dira lanean nortasuna garatzeko. Jokabidearen parte handi bat 'jokabide baldintzatua' egiten da, eta oso zaila da aldatzea. Pertsona, inkontzienteki programaturik dagoenean pentsamendu edo jokabide egozentrikoen ohitura handiarekin -eta gainerakoekin harmonian bizitzea zail egiten zaionean-, psikoloarenera joango da, honek arazo mental/emozionalen korapiloak askatzen laguntzeko. Harik eta ene **Existentiaren Egia** erabat ulertua izan arte, eta Biziaren printzipio sortzaileak arau tinkoa izatera iritsi arte pentsamenduen

ohituretan eta bizitzaren esperientziei erantzunetan, ez dira oinazeak eta sofrikarioak desagertuko; zeintzuk bulkada egoisten atsegin ezjakinetatik ateratzen diren.

Elizak, giza zailtasun hori 'Satanasen tentaldia' bezala deskribatzen du. Ez dago halakorik. Berezko prozesua da, **bizitzaren aurrean izaten diren kontrolik gabeko erreakzioek sortua, Indar Egozentrikoak bultzatuak; eta Indar horren helburu bakarra honako hauek ekartzea da: zorientasuna eta banakoarentzako poztasuna, beharren asetasuna -edo- intimitatea, independentzia, segurtasuna, bakea ... dena BIZIRAUPENARI begira.**

Ulertu beharra dago ez dagoela ezer gaiztorik indar-egozentrikoan, **sortzeak behar duen tresna baita.** Gizabanakoak berak eragiten ditu desorekak bizitzan, indar-egozentrikoari nortasunean kontrol osoa izaten uzten baitio, besteengan pentsatu gabe eta besteak haintzat hartu gabe.

Hori ez da, ez epaitu, ez kritikatu behar; zeren, indar-egozentrikoaren menpe bizi den pertsona ez baita gai beste era batez pentsatzeko eta jarduteko lur dimentsioaren barrenean.

Haurrak ez daki ezer burukontrolaz, ez bada gurasoek eta eskolako maisuek erakutsitakoa. Beraz, bizitzaren aurrean eta gora-beheretan erantzutean egiten dituen hutsak gogo onez soilik onar daitezke guraso eta maisuen aldetik, zeren haurrak ez baitaki ezer bera bultzatzen duen indarraz.

Zerbait nahi badu, oraintxe NAHI DU, eta galdetzen du zergatik ez duen eduki behar. Bere gogamenean hori baino ez dago. Irrikatzen duen zerbait dakusa; nahi du.

Ankerra da ume bati bortizki esatea: 'Ez, ezin duzu eduki'. Horrek iraindu eta eraso egiten dio bere sistema osoari. Hautzarotik hasita trebatze-prozesua logikaz eta ongi ezarritako konfiantzaz egin behar da bere inguruan seguru sentitzeko eskubidea adieraziz. **Bere ziurtasun-gaitasuna garatu beharra dago, desirak adierazteko modu egokia azalduz. MAITASUNAK -ez sumindurak, ez haserre biziak- aukeratutako hitzen bidez azalduko zaio haurrari zergatik ezin duen eduki berak nahi duena.** Haurrak, adi-adi entzungo du mezua maitasunez ematean. Baina haserre ematean, duen indar egozentrikorik sakonena sorraraziko du, eta indar hori hartzen hasiko da erresumin forma -agerikoa edo ezkutukoa-, edo guztiz erroturiko porrot-sentimendua, zeinak 'egoa' zikintzen baitu, eta haurraren barneko 'baliotasunaren berezko zentzua' murrizten baitu. Haur batek, baliotasunaren berezko zentzua izan behar du, eta hori ez da menperatua edo suntsitua izan behar.

Gurasoek eta maisu-maistrek argi eta garbi adierazi behar diote, gainerako pertsonak ere munduan euren beharrak, jabegoak izateko eskubidea, eta gozatzeko eta bakea izateko desirak dauzkatela.

Inork ez du, ezta haur batek -edo pertsona heldu batek- ere, beste pertsona bat nahigabetezko eskubiderik, bere asetasuna lortzearren! Beste batek haurra jotzen badu eta negar eragiten badio, guztiz naturala da indar egozentrikoak kolpea itzuli nahi izatea, programatuta baitago bere burua bestearen aurka defendatzeko. Horrek zera adieraztea eskatzen du guraso eta maisu-maistren aldetik: mendeku bat gatazkan etengabe gero eta **handiagoa** egiten dela haur bakoitzari min handiagoa ekarriz; eta horregatik, mendekuak ez daukala inolako zentzurik. Hobe da **BARRE EGITEA** eta itzuli erdia ematea. Eta gogamenean narridura eta oinazea jarraitzen utzi beharrean, hobe da arazoa **ZERUKO KONTZIENTZIARI** eramatea **otoitz eginez**, eta mina bere kontzientziatik desagertzeko eskatzea, eta bakea egiteko modu bat bilatzea.

Haurrari ere erakutsi behar zaio astia hartu behar duela ulertzeko -bera eta beste haurra era berdinean

sortuak direla **Zeruko Unetik**. Haur bat espiritualki harkorra denean, eta beste umeekiko eta izaki bizidun ororekiko afinitate espiritualaz jabetzeko eta 'besteen eskubideak eta bereak berdinak direla' onartzeko prozesu hori ohitura bihur dezakeenean, dohai espiritualik handiena jaso izango du. Horrela, indar-egozentrikoa ahuldu egiten da maitasun-inspiratuaren eguneroko praktika ezartzeagatik, eta bitartean hauraren 'NI' dominio zentrala indartsu eta seguru geratzen da.

Haurrari barrearen onurak erakutsi behar zaizkio; horiek geroko GUTUN batean deskribatu eta azalduko ditut.

Beraz, **irakaskuntza** egokia eta ikuspegi sakonekoa behar-beharrezkoa da haurra, **-BERE ESKUBIDEEN BERDINAK-** diren gainerako eskubideak **aintzat har ditzan gidatzeko**.

Hauxe da etxean eta eskolako ikasgelan nagusitu beharko litzatekeen lege espiritualak.

Inguruabarrak epaitzen dituen beste edozein lege, akastuna eta oreka gabekoa da.

Irakaskuntzarik onena ez dago - maisu-maistren mende - '**NEUK** esaten dizudalako' jarreraren mende, baizik eta inguruabar bakoitzean 'senitarteko maitasunari' eta gainontzekoen eskubide berdinei egindako aipamen sistematikoaren mende.

Aldi berean, haurra ez da buru-ukatzean doktrinatu izan behar; **zeren horrelako gaitasunak soilik gizabanakoaren beraren helburu eta hautemate espirtualetatik desiratua eta sortua izan behar baitu**.

Buru-ukatzea sortzen da iluminazio espirtualetik, goragoko bide bati jarraitzetik, 'NI' txiki hori ukatzetik **Zeruko Kontzientziaren** unibertsaltasunarekin sentsibilizatzeko gaitasuna oztopatzen duten hesi egozentrikoak kentzeko. Benetan iluminatutako buru-ukatzeak, alaitasuneraino heltzen den kontzientzia espirtuala dakar. Ez dago galera sentipenik inola ere.

Arimaren eta **egoaren** errealitatea hobeto deskribatzeko, eskuekin hutsunea egin dezazun nahi dut, hazmamiak -esku batekoak bestekoekin- elkartuz, bi eskuen artean espazio-hutsa utziz. Eskuek, pertsona baten '**giza kontzientziaren maskorra**' -egoa- adierazten dute.

ESPAZIOAK zuzen adierazten du zure sorkuntza-unean **Aita – Ama 'Kontzientzia – Biziak'** sortutako **ARIMA**. Giza zentzumenentzat 'ezer' ez dela ematen badu ere; izatez, **ZERUKO KONTZIENTZIAREN BETETASUNAREN ETA OSOTASUNAREN** kimu bat da; **ZEINAK** forma eman baitie sortutako gauza guztiei. **Zure eskuek, erdian espazioa dutela, 'NI-A' adierazten dute**.

Zure bi eskuek, eskuinak eta ezkerak, indar egozentriko-magnetikoaren bi indar ahaltsuak adierazten dituzte. Atxikiduraren-arbuioaren indarrak adierazten dituzte, baina aldi berean, arrazoiz, energia fisikoaren irudikapen fisikoa dira; energia fisiko horiek Zientziak magnetismoa - 'Atxikidura eta Arbuioa' bezala ezagutzen ditu.

Tolestu eskuineko eskua atze aldera eta irudika ezazu 'bizitzatik nahi duzuna lortzeko' erabiltzen duzula. Adierazi ere adierazten du zure giza kontzientziak jarrera 'diruzalea' bezala somatzen duena bizitzaren aurrean. Har ezazu behar den denbora ariketa honetan, eta ohar zaitez eskuineko eskuak teinkada magnetikoa adierazten duela, atxikidura, erakarpena, naturaren teinkada magnetiko guztietan den grabitate nabarmena. 'Irrika eta desira' orenen iturria da. Bizitzan behar dena edo oso desiratua eta atsegingarria den guztia lortzera jotzen duen **bulkada magnetikoa** da. Bulkada **magnetiko horrek**, helburu eraikitzaileen aldera bideratua izateko '**asmo espirtuala**' du. Irabaziz, eutsiz, eraikiz, lortuz.

Beste pertsonarik edo izaki bizidunik ez balego munduan, bulkada magnetikoak erabateko nagusitasuna izan lezake pertsonalitate batean, eta ez legoke kalterik.

Baina, 'beste pertsona batzuk', edo izaki bizidun batzuk edo gizaki maitatuak edo gainerakoen jabetzak kontuan hartu behar direnean, **'erakarri, atxiki, heldu eta edukitzen duen kontrolik gabeko bulkada magnetikoa'**, nortasunaren gaixotasun bihurtzen da, berdintasunez orekaturik ez badago gainontzeko izaki bizidunen beharrekin.

Tolestu eskuineko eskua atze aldera

Kokatu eskua jatorrizko tokian, ezkerreko eskuaren ondoan espazio-hutsa utziz.

Orain, eraman ezkerreko eskua atze aldera, eta irudikatu esku horrek adierazten duena; hots, aldaratzeko, bultzatzeko, ukabilka aritzeko, edo jabetzaren, ondasunen nahiz zure pertsona, familia edo lanaren gaineko edozein erasoren aurka baimendu gabeko edozein erasotatik babesteko 'bulkada magnetikoa' adierazten du. Eta baita, zure buruaren, familiaren, edo lanaren aurkako edozein erasotatik babesteko ere. Ezker esku horrek 'arbuiaitzeko bulkada magnetikoa' adierazten du; zeinaren asmo espirituala baita zure intimitatea bermatzea eta bizia salbatzea. Bidezko arma da zure biziraupen fisikoa edo emozionala jokoan dagoenean, beti ere gogoan duzularik zure ekintza bakoitza kontzientzian den atxikidura/arbuio jardueraren patroia elektro-magnetikoa dela, errebotatzen duena eta azkenean azaleratu egiten dena antzeko eraso baten forman norberaren aurka.

Ezadostasuna izan daiteke aitaren, maisuaren, edo nagusiaren aldetik zuri egindako kritika; eta gogamenera jauzi egiten eta zure ahotik jariatzen diren autodefentsa hitzak, autodefentsak sorturiko hitz 'egozentrikoak' dira erabat. Hitzok, arbuioaren eta gaitzezpenaren bulkada magnetikoa adierazten dute. Eta zure erasoko hitz egozentrikoak haserrezko hitzetan lehertzen direnez, zure aurkariaren egoa ere berdin dago mehatxaturik eta berarengandik autodefentsa hitzak sortzen dira zure aurka. Behar den zentzuzko akzioa bezala hasi ahal dena 'adieraziz akatsen bat eta jokatzeko modu hobea', maiz gertatzen da ego sentibera eta egozentrikoak eraso pertsonala bezala ulertzen duela berehala. Hazteko **unea** izan behar zuena zera bilakatu da: gatazka, haserre, beharbada malkoak, erresumina, eta elkarren aurkako etsaikeria-aldi.

Halako modu azkarretatik, ezustekoak eta **premiagabekoak** eurak, gatazka sortzen da gogamenean hitzez adieraziz -baita ekintzez ere-; eta horrek erresuminaren eta gorrotoaren bidez iraunarazten du.

Gogora ekarriko dizut gogamenaren jarduera bakoitza -pentsamendu mentala, eta erakarpenaren eta aldarapenaren erreakzio emozionalak-, **kontzientziaren sormen energiak** direla den-denak. Kontzientziaren energia horiek errebotatu egiten diren forma desatseginak sortzeaz gain, izaerari halako norabidea ere ematen diote; eta harremanetan -oro har- eta giroan...ere eragiten dute, eta gorputzaren bizitasuna murrizten dute, zuzenean ondoez fisikoaren zirrara ekarri, edo virus-infekzioa, edo epe luzeko gaixotasuna.

Edozein modutan erasotua zarenean, biderik gorena -ondorio eraikitzaileak baino ez dituen bidea- zera gogoratzea da: atoan **ZERUKO KONTZIENTZIARA** jo dezakezula, zeinetatik bat bateko babesa jasoko baituzu edozein gertakizunetan. Baina hori soilik gerta daiteke, **erresistentzia magnetiko egozentrikoaren bulkadatik** haratago mugitzerik baduzu, guztiz seguru zaudenean **ZERUKO KONTZIENTZIAK** zure behar guztiak asetzen dituela.

Orain jarri berriz ezker eskua hasierako kokapenean eskuinaren ondoan.

Uler ezazu ariketa honetan eskuen arteko **ESPAZIOA, ESPAZIO** izaten jarraituko duela. Ez dago nahasirik eskuen inongo jardueratan. Eta horrelaxe da zure **ARIMAREKIN**, zure **egoa** jo ta ke lanean ari denean -segundoz segundo-, zeina beti eta betiko erne baitabil zure beharra burutzeko eta edozein nahigabetatik ere babesteko. Zure **ARIMAREN ZERUKO KONTZIENTZIA** ezkutuan geratzen da, beti zure baitan badago ere.

Lurrean izan nintzelarik, jendearekin 'Zeruetako Erresumaz' hitz egiten nuen. Zure barnean zegoela esan nuen, eta horrela da. Zure arima da. **ZERUKO KONTZIENTZIAREN** orekaren egoitza da, **ZEINAK** izatea eman baitizun etorkizuneko gizon edo emakume bezala.

Zure gogamenean gogo biziz jarri nahi dut zure **IZATEAREN ITURRIAREN** ikuspegi zabal bat, zuk argiari somatu ahal izateko zeure hasiera, zu nondik etorria zaren jakin dezazun, alegia.

Une oro ere ulertu behar duzu, nik **BENETAN EZ-EZAGUNA DEN HARTAZ** hitz egiten dudanean, Ni Neu goreneko bibrazio frekuentzia infinitesimaletan nagoela, **OREKA UNIBERTSAL HANDIAREN** ertzean; zeinetatik gauza guztiek izatea aurkitu duten eta forma hartu duten.

Mendi batez mintzo banaiz, irudi bat sartuko da zure gogamenean, baina ez dituzu ezagutuko bere egituraren neurrigabetasuna, harkaitzaren gogortasuna, sakanak, tontorrak eta haitzuloak; ezta, urtaro bakoitzean den gailurreko elurra eta glaziarra urtzean putzuetan erortzen diren urjauziak ere. Mendiaren handitasunaren begiztatze bat izan dezazun, bazter bakoitza zehatz-mehatz deskribatu beharko nuke. Ahozko azalpenik zehatzena eman ondoren ere, irudi mental bat baino ez zenuke inspiratzeko izango. Oraindik ez zenuke mendia **EZAGUTUKO**.

Hurakanari buruz hitz egiten badut, zure gogamenera ekar dezaket lurrerantz makurtzen diren zuhaitzak -izugarritzko haizeteek uztai eran makurraraziak-, suntsitzen diren harresiak, zutabe hautsiak, adreiluak eta teilatuak airean, leiho txikituak, auto irauliak eta itzelezko zuhaitz erauziak; baina inoiz ez duzu ezagutuko haize horren indarra eta zarata, erortzen den harri-hormaren burrunbada, edo jasan behar duen jendearen bihotzean hurakanak sortzen duen beldurra; harik eta zeuk esperimentatu arte ez duzu ezagutuko. Eta horrela da zuri deskribatzen saiatzen naizenean, **KREAZIO GUZTIARI IZATEA EMAN DION 'HURA'**. **Igarri baino ezin duzu egin, ez duzu jakiterik.**

Nik zuri esandako guztia -zeure kabuz- esperimentatu ondoren soilik hasiko zara kontatu nahi dizudanaren ideien bat izaten. Beraz, nire **GUTUNAK** irakurtzen dituen inork ere ez dezala beste batekin eztabaida, edo ez dezala irakasten ari natzaizunaren egia uka, edo ez ditzala ene hitzak gezurta; zeren eta bene-benetan diotsut ezin duzula **jakin** esperimentatu ez duzuna.

Eguneroko meditazioaren onarpenean eta fedean, kontzientziaren arazketan, eta iluminazioaren aldeko otoitz suharrean jarraitu nahi didaten guztiek soilik lortuko dituzte azkenean gero eta begiztatze sakonagoak, eta gero kreaioak berak sarbidea ekar dezakeen gauza haren esperientziak; hots, **Zeruko Kontzientziara** iristeko esperientziak.

Baliteke zuk galdetzea zein den **Kontzientzia Unibertsalaren eta Zeruko Kontzientziaren** arteko aldea. **KONTZIENTZIA UNIBERTSALA, ESPAZIOAREN ERRESUMA UNIBERTSALA** da, **NON** inork ez daukan sartzerik; zeren **BERA** energia nahikotasunaren egoera orekatsuan baitago.

ZERUKO KONTZIENTZIA, jatorrizko **BULKADEN** berbiltzea da, zeintzuk **KONTZIENTZIA**

UNIBERTSALAREN barnean baitzeuden, eta **BIG BANG** unean kreazioaren jarduera nahiz sustantzia bihurtzeko askatuak izan baitziren.

BULKADA horiek era eztrandagarrian banatu ziren, eta gero berbildu egin ziren elkarrekiko bridatze-egoera batean. Beren helburua zen betiko lan egitea sortutako erresuman: edo bereizirik energiak bezala manifestatuz, edo elkarturik orekan kontrolatuz.

ZERUKO KONTZIENTZIAREN erresuma soilik izan daiteke zientziak barneratua.

Agian hurrengo ahapaldi honek argiago azalduko du kontu hori:

KONTZIENTZIA UNIBERTSALA

BULKADA UNIBERTSALEN

adierazpena.

Sortzeko NAHIAREN

BULKADA

ADIMENA

elkarrekiko bridatze-egoeran

elkarrekiko bridatze-egoeran

Adierazteko ASMOAREN

BULKADAREKIN

MAITASUNAREKIN

NAHI ADIMENTSUAREN BULKADA: orekan: ASMO AMULTSUEN BULKADA

Nik zuri, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** deskripzio hau adimen-hitzen bidez eman ondoren, ez zara egongo zure dimentsiotik haratago den Ahalmenaren goreneko handitasuna nabaritu ahal izatetik gertuago; ezta ere edertasunetik, alaitasunetik, harmoniatik, eta -kolorean eta soinuan dagoen- estastik hurbilago. Bakarrik geuk, kontzientziaren bibrazio-frekuentzietan **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** orekaren mugaraino edo atarietaraino bertaraino igo garenok, esperimentatu eta irradia dezakegu **egiazko gaitasunaren buru-ezagutzaren estasia, burutzeko irrikitan egon gabe; hots, errealizazio pertsonalaren alaitasun zoragarria 'hatz bat bera ere altxatu' gabe.**

Termino hori metaforikoki darabilt, zeren -banakotasunari eusten badiot ere- **kontzientzian** baino ez naiz aktiboa, eta jada ez naiz aktiboa fisikoan inola ere, eta ez naiz izan gurutzean hil ondorengo igokunde espiritual etengabetik beste dimentsio batzuetan zehar.

Beharbada, galdetuko duzu nola den posible BULKADA UNIBERTSAL hain itzelak izatea oreka-egoera barruan. Elkarrekiko bridatze berdineko egoera batean daude; hots, lotzen eta elikatzen duen MAITASUNAREN BULKADA(K), sortzailea den NAHI aktiboa kontrolpean sostengatuz eta mantenduz.

Fenomeno hori, honako termino xume hauen bidez baino ezin dizut azaldu.

Esku baten ahurra bestearen ahurraren gainean -esku bakoitzaren hazmamiak bestearen eskumuturra ukituz- kokatzen baduzu, eta gero bereizten saiatzen bazara baina irmoki leun mantenduz bata bestearen gainean, 'orekak' edo 'elkarrekiko kontrolak' esan nahi duenaren ideiarekin bat izango duzu.

Are gehiago, honako hau jakin behar duzu: eskuek fenomeno fisiko bat adierazten dutela ematen badu ere, izatez, BULKADAK gobernatuak dira; eta eskuok zure burmuinetik isurtzen diren

BULKADAK ari dira adierazten. Gainera, zure burmuina ideia kontzienteak -bulkadak- adierazteko bitartekoa izan daiteke; baina, izatez, **BULKADA** da edozein izaeraren mugimendu ororen errealitatea; ez burmuin fisikoa, zeina aipaturiko bulkaden adierazpen tresna baino ez baita.

KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN kontakizun intelektuala baino ez dizut eman.

Nola deskribatuko dizut bere izatearen ahalmen ezkutua, begiramenaren handitasuna, estasia, zorion distiratsua; eta erabateko poztasun, bake eta harmonia egoera?

Zuk, **KONTZIENTZIAREN NEURRIGABETASUN** horretatik unibertso guztiak bizia eta forma hartu dituela kontuan hartu eta ulertu ahal izango bazenu ere, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALA** den **Gogozko Errealitate zabal eta neurrigabetik elektro bakar bat baino ezingo zenuke hauteman.**

Sortzearen izaera osorik ulertzeko: egoak funtzionatzen duen bezala funtzionatzeko arrazoiak, sortutako entitateek zergatik sentitzen dituzten, sentitzen dituzten bulkadak, zera ulertu beharra dago: **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN IZAERA** eta **KALITATEA** dela, **ALAITASUN DISTIRATSUA - GAUZATZEA - ZORIONTASUNA.**

Nik **HORRI EMAN NION IZENA** da: 'ZURE BAITAKO JAINKOAREN ERRESUMA' – ZURE ARIMAREN BARNEAN – ZURE PSIKEAREN ZOKOMOKO SAKONENETAN; zeina (psikea) bitartekoa den, zure arimak duen distiraren eta egoak duen itzalaren artean.

Zure arimaren irrikarik sakonena da izatearen haraindiko egoera, aintzagarri, eder, zorionsu eta harmoniatsu horretara itzultzea!

Etengabeko irrika horrek, orekaren eta bakearen, alaitasunaren eta harmoniaren berezko oroitzapen inkontziente horrek, **EGOA** bultzatzen du psikearen bidez ingurua zure alde manipulatzera. Bere helburu sendoa da, zu itzultzea estasi aintzatsua duen oinarrizko zeure egoera jatorrizkora, zeinetatik sortu baitziren zure arima, zure izatea eta zure forma.

Baina, egoak zure gogoko gozamina eta atsegina lor dezake soilik Atxikidura/Arbuio bulkada magnetiko/emozional bien bidez; zeintzuk bulkada materializatuak besterik ez baitira, zuri banakotasuna emateko.

Beraz, **IZATEAREN ITURRIAREKIN** bat egiteko berezko *irrika*, pentsamendu eta sentimenduen parametro elektro-magnetikoetan esperimendatzen da, zirarra atsegingarri batek lehenago eman zizuna baino 'gehiago, gehiago, gehiago' bezala. Adiskide gehiago, etxe gehiago, auto gehiago, jantzi gehiago eta abar. 'Gehiago' lortzen den bakoitzean asetasun-sentipen txiki bat dago, beharbada 'handikeria' auzokideen aurrean eurei aurrea hartuz zorientasuna goraiatzeko, eta beste asetasun-sentipen txiki bat izateko; eta gero berritasuna pasatzen da, jabetza berria prosaiko bihurtzen da, zentzumenak bere horretara itzultzen dira -orekan- nekadura mentala hasten da, egunerokotasuna lainotsu eta aspergarri egiten da. Bizi pixka bat sorrarazteko, egoak lortzeko beste helburu bat aurkitzen du, ilusioa eta gozamina ematearren. Eta horrela, bizitza, zenbait motatako asetasun pertsonal-lasterketa mugagabea da; arima, ezkutuan gaizki elikatuta eta asegabe utziz. Oraindik ere, zerbait 'gehiago' irrikatuz; baina, baina zer irrikatzen ari da nire ni sakonena? - galdetuko duzu etsi etsian.

Pertsona batek ulertzen duenean bere hutsunearen eta barneko 'ondo sentiarazi ninduen horretatik

gehiago' etengabeko nahiaren benetako iturria, eta meditatzen hasten denean **IZATEA EMAN ZION... 'HAREKIN'** kontaktatzeko, **Zeruko Oreaktik** pixka bat iragazten da giza kontzientziara. Hutsunea murrizten hasten da.

Baldin eta aipatu pertsonak **BETIKOTIK** eta bizitzaren benetako helburutik zerbait begiztatzen badu, jabetza gehiago izateko irrika hori itzaliz joango zaio poliki poliki. Berak baduenaren estimu zintzeroak eta etengabeko poztasun zentzuak pixkanaka ordezkaturiko dute jabetza 'GEHIAGOREN' gogoak. **ZERUKO KONTZIENTZIAK** parte hartzeagatik edo **BERE** jarduera miragarriagatik, pertsonaren eguneroko esperientzien bidez, giza kontzientzia itzel igotzen da, eta ikasten du bere eguneroko beharrak erarik hoberenean asebetetzen direla. Fedea handitzen da, eta alaitasuna gehiago hazten da. Horregatik esan dizut: Ez naiz etorri 'positiboki pentsatzen' erakustera, zure ingurura nahi eta behar dituzun gauzak erakartzeko. Nahita etorri naiz **Zeruetako Erresumara** itzul zaitezen bideratzera.

Hala eta guztiz ere, zure arima bere toki sekretuan atxiloturik egotearen arrazoia ez da soilik zuretzat jabetza gehiago nahi izatearen kontua. Egoak, 'egotzi-arbuiatu' bulkada emozional magnetikoa ere badarabil zure banakotasuna, barnekotasuna eta segurtasuna bermatzeko. Bulkada horrek, diseinatutako hainbat forma hartzen ditu, zuri nagusitasun zirrara edo elitismoa emateko, zeinak babesten baitzaitu gustuko ez duzun jendearengandik edo zuk baino gizarte-maila txikiagoa dutenengandik. Bulkada egozentriko hori etengabe praktikatzen da, eta elizen iritzirako ere guztiz onargarria izan da. Egia zera da: arimak, egoaren bulkadarekiko kontrol pixka bat irabazten hasten denean, giza nortasunari kargu hartuko dio egoismoagatik eta eskusibotasunagatik. Arimak psikea bultzatuko du berehala onartzera baldintza gabeko maitasuna, unibertsalitatean sinestea eta jende guztiaren -direnak direla- Batasuna.

Agian orain errezago ulertuko duzu nola eta zergatik, Egoaren bitartez, zure indibidualitatea sortzeak osatu zuen 'bulkada fisikoen' kapsula itzela, zeinak zure giza kontzientzia ekoitzi eta itxi zuen; horrela sortuz, bai zure forma fisikoa, bai zure giza nortasuna. Egoak, zure gogamena eta emozioak, pentsamenduak eta sentimenduak gobernatzen dituzenez gero, ez dizu uzten zure **IZATEAREN ITURRIAREKIN** eta zure **ARIMAREKIN** kontaktatzen.

ZURE BENETAKO ASMOA bizitzan egoa menperatzea duzu, **SORTZEAREN ATZEAN DAGOELA NABARITZEN DUZUN** -'HURA'- pentsamenduz eta sentimenduz irrikatzean, etengabe iluminazioa eskatuz.

Horixe da lehenengo eta behin pertsona batek egin behar duen aurreneko urratsa, **ZERUAREKIN** kontaktua egingo duen zorioneko une hura bizitze aldera; eta gero aurrera egin bulkada egozentrikoaren etengabeko arazketaren bidez, harik eta berriz sartu arte 'zeruko egoera' hartan, non zure arima jaiotzen eta honek indibidualitatea hartu baitzuen.

Eta nola gertatu zen **INDIBIDUALITATEAREN KREAZIOA**?

Lehen esan dudanez, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAK** elkarrekiko bridatze puntu altua lortu zuen; lehertu, eta leherketaren ondorioz honako zati hauek egin ziren:

NAHI SORTZAILEAREN BULKADA / ASMO AMULTSUEN BULKADA

Horiek banatu ziren eta kreazioaren barnean horrela aktibatu:

Aita Adimena: Ama Maitasuna

Horrelaxe ikusiak:

Elektrizitatea : Magnetismoa ‘Atxikidura-Aldarapena’

!

Bizia

!

Orekan horrela berbatuak:

ZERUKO KONTZIENTZIA

!

BIZIA

Beraz, solido eta ‘materia’ neurtezin izatetik urrun, -izatez- zera da ageriko mundua:

Gogamena/Jarduera da beti batera lan egiten duena Emozionala/Magnetikoarekin Atxikidura-Aldarapenarekin. ‘Erakarpena-Arbuioa’ bezala ere ezaguna da.

Aita Adimena: elektrizitate fisikoa

eta

Ama Maitasuna: fisiko magnetikoa ‘Atxikidura-Arbuioa’

Elkarrekin seme bat sortu zuten - EGOA

!

INDIBIDUALITATEAREN BULKADA HONEK

jaio eta forma egonkorra eta aldaezina hartu zuen sormen energien baitan, zera bermatzeko: protoiak, elektroiak eta zientziak kitzikapenez aurkitutako gainerako partikulak bezala agertzen ziren hainbat indar elektrikok ihes egin ez zezaten etengabe hegaka ez-forma egoera eta urrun batez; baizik eta, ‘Atxikidura-Arbuioa’ Ama Maitasunaren BULKADA magnetikoak kontrolatuak izan zitezen, forma baten manifestaziora iristeko.

Baliteke zientziak aurreko paragrafoak ezbaian jartzea, zeren zailtasun handia izan baitu ‘atxikidura prozesu’ batzuk deskribatzeko, atxikidura energiei termino ezberdinak ezartzean. Zientzia ongi etorria da nahi duten terminoarekin izendatzeko ‘atxikidura edo erakarpen’ energiak, baina kontua da energia horiek forma hartu dutela AMA MAITASUNAREN jatorrizko BULKADA handitik, zeinak KONTZIENTZIAREN JATORRIZKO funtzioa baitu indibidualitateari forma ematea. ‘Aita Bizi Adimentsuaren’ BULKADAK, kemen elektrikoa dakarkio kreazioari.

‘Ama Helburu Amultsuaren’ BULKADAK, atxikidura ematen du kemen elektrikoa murrizteko, eta berau indibidualitatearen baitara kontrolpean ekartzeko.

‘Ama Helburu Amultsuaren’ BULKADAK, ‘aldarapena-arbuioa’ bulkada ere hornitzen du, banakotasunaren biziraupena bermatzeko.

Hauxe da sortzearen prozesua.

Zientzia ikusle gisa soilik hurrera daiteke kreaziora. Nahiz eta Zientziaren enbaxadoreak gizakiak izan eta beraiek bizia esperimentatu; giza gogamenak sortutakoari baino ezin dio begiratu. Ez dauka sartzerik

'materian' gordeta dauden sortze-prozesu sakonetan, ezta oinarrizko eremu energetikoetan ere.

Zientziak inoiz ezingo du identifikatu **X FAKTORE ERAGILEA**, zeinetatik sortzen baitira forma indibidualaren sortzapena kontrolatzen duten energiak.

Baina, Zientziak kreazioaz esan behar duenak ez du garrantzirik zuretzat, gizabanako bezala. Zientziak ez ditu -pixka batez ere- aldaraziko zure bizimodua, osasuna, ingurua, sentimendu pertsonalak eta lorpenak.

Jakin behar duzuna da -eta horregatik etorri naiz beren-beregi kontatzera- nola ihes egin **EGOAK** ematen dizun bulkada egozentriko-posesibo-babesletik; bermatzeko zure banakotasuna, biziraupena, eta alaitasunera eta zorientasunera itzultzeko duzun gogo bizi erantsia, zeinetatik kreazio guztiak **BIZIA** hartu baitzuen.

Horrek azalpena ematen dizu, zegatik etorri nintzen lurrera lehenengo aldian, eta zergatik natorren une honetantxe; zientzialari batek inoiz ere ezingo duena zure alde egiteko; hain zuzen, zure arimari laguntzea zure bulkada egozentrikoaren mugetatik irteten; eta 'zure pentsamendu eta emozioentzat bizitza'- programa berri batean itsasontziratzea, zeinak zuzen adieraziko baitu sorkuntza-unean zure baitan eta gizateria osoan txertatua izan zen 'Aita-Ama Kontzientziaren Bizia'.

Egoak bere baitan izaten duenez bai Jarduera-Sormenaren kemen elektrikoa, bai 'Atxikidura-Arbuioa' direlako bulkada magnetiko emozionalak, ego-bulkadatik jaiotzen dena bizi fisiko elektromagnetikoz zamaturik egongo da bere pentsamendu, sentimendu eta ekintzen bidez, eta bizi forma berdinak ugalduko ditu, eta halabeharrez ego-sortzailearen bizitzan gauzatuko dira.

Sortutako forma hauek esperientziak bezala manifestatu ezezik, bere sortzailearen prozesu fisikoen funtzionamendua desordenatu ere egiten dute; eta ondoez fisikoen, virusen edo gaixotasunaren sorburua dira.

Beraz, oso pozgarria da arima azalera denean enkapsulaturik duen egoaren giza kontzientziatik; zeren gorakako kontzientzia espiritualak, bizia ematen duten egoera harmoniatsuak sortuko baititu. Alderantziz, tristezia ororen kausa da giza kontzientzia egoaren kontrolpean dagoen bitartean; eta kontrol horrek liskarrak eta atsekabeak ekartzen ditu, bai bizi esperientzietan, bai egoera fisikoan berean.

Beraz, hauxe diotsut: zure mundua gustuko ez baduzu, eskuetan daukazu zeure existentziaren kondizioak aldatzeko modua, zauden tokian zaudela, baldin eta hala egiteko etengabeko fedea eta nahia badituzu. Berriz diot beste modu batez, zure arreta neureganatzeko.

Oraingo giza pentsamendu eta funtzionamendu mailan jarraituz gero, orain duzun giza existentziaren maila baizik ez duzu esperimendatuko.

Gogor lan egin beharra izango duzu hainbat arazoz betetako bizitza miserablea izateagatik, hala nola, pobrezia eta osasun txarra, menpekotasunak, ahultzen duten beldurrek immobilizaturik egotea, eta era guztietako asmo txarreko eraso menpe egotea.

Zure gaurko kondizioez estuturik egongo zara horiek nola aldatu behar dituzun ulertu arte.

Hauxe duzu urrezko aukera, inoiz ez bezala zeure bizitzaren kontrola hartzeko, zeure pentsamendu eta emozioen -zure bulkada elektrikoak eta magnetikoak- kontrola lortzearren, zeintzuk baitira zure

etorkizuneko esperientzien egitasmoak.

Zeren, zu buztina darabilen eta egunero ontziak eta tresnak moldeatzen dituen ontzigilea bezalakoa baitzara. **KONTZIENTZIA** buztina da, zeure bizitza egiteko duzun sustantzia/mamia eta bizitzari berari dagokion kondizio bakoitza. Zuk, esperimentatzen dituzun formetan baino ez duzu moldeatzen bizitza.

Zeure pentsamenduekin etorkizun pertsonala alda dezakezu, soilik jaramon egiten badiezu nire hitzei, zeure benetako sorburuak ezagutzen badituzu, beraietan sinesten baduzu, eta ezagutza hau zure egunerokoan erabiltzen baduzu.

Eragin dezakezu zure inguruan, zure etxegiroan, familian, lanean; zurekin elkartzen den jendearengan, baita landareetan, animalieetan eta kliman ere.

Gogamenean irmo gordetzen duzuna azaleratu egiten da.

Beraz, garrantzi handikoa da zure giza garapen espiritualerako, zuk erabat ulertzea irakasten ari natzaizun guztia.

Ez pentsa aurkezten dizkizudan Gutun hauek ulertzen zailegiak direnik, gero zorientasuna aurkitzearren modu errezagora jotzeko!

Sinetsidazu! BENETAN ez dago hau baino modu errazagorik, bilatzen ari zaren oreka eta zorientasuna aurkitzeko; zeren nire hitzek adierazten baitute EXISTENTZIAREN eta BIZIAREN EGIA UNIBERTSALA, zeinarekin, gaur egun zure bizitza eraikitzen edo suntsitzen ari zaren.

Aldi berean ziur egon zaitezke sekula ez zarela gai izango kondizio berririk sortzeko zuretzat, harik eta jakin arte ZERGATIK eta NOLA aritu zaren sortzen kondizio negatiboak iraganean.

Orain esperimentatzen duzun guztia sortua eta abian jarria duzu iraganeko pentsamendu, hitz eta egintzekin. Beraz, ez zaitzatela mingostu gaurko inguruabarrek, zuk zeuk egin duzulako gero izan zena zure gaurko kondizioen kausa!

Izan zaitez zentzuduna, bada, eta irakur itzazu Gutun hauek; eta saia zaitez indar eta borondate guztiaz jakiten zure bizitza iraganean hondatzeko erabili duzun modua.

Gero, egin itzazu zure kontzientzia arazteko behar diren urratsak!

Beharbada galdetuko diozu zeure buruari: 'zergatik araztu behar dut neure kontzientzia?'

Esan egingo dizut: Zuk inoiz ez zenuke artasoro bat ereingo, lehenengo lurra goldatu gabe eta gero lurra biguntzeko eta ongarrria hedatzeko makineria sartu gabe. Ez bazeneki, erein zenezake dauden belar txarren artean, gorabehera handiko lursoroan, eta ongarrria alde batera utz zenezake; eta orduan uzta eskasa eta aldakorra izango litzateke. Horrelaxe izaten da lurreko zure pentsamendu egozentrikoekin moldatzen zarenean, eta erabat zeure ezagutzarekin, indarrarekin eta giza borondatearekin bizi zarenean. Mugatuta zaude egiten duzun guztian. Eta jakin gabe, zure ahaleginen uzta mugatzen duten inguruabar berberak sortzen dituzu.

Benetan nondik zatozen edo jatorria non duzun konturatzen zaren momentuan

bila ezazu Ahalmena, zeinetan oinarritu ahal zaren zure bizitzan gauza guztiak egiteko,

eta egin itzazu premiazko urratsak belar txar guztiak kentzeko

horrela zure kontzientziaren lurra araztuz;

inspirazioa **AHALMENEAN** topatuko duzu,

ZEINAK zure esperientziak eta eguneroko jarduerak adoretuko eta aurrera eramango baititu.

AHALMENA zure ongaria dela esan zenezake, baina hori zehazgabea eta faltsua izango litzateke.

Ongaria, bizigabea den elikagai kimikoa da landareentzat, **AHALMENA**, aldiz, **zeinetatik** dena jaso baitezakezu eguneroko meditazioaren bidez, **BIZIA** da; hain zuzen ere, **BIZIAK** zure izate osoa eta bizitza indartuko ditu, baita zure landareak, etxearen adreiluak eta hornikuntza ere, zure gaurko sinesmenetik guztiz haratago. Egia hau bizitzeko, nahiaren indar osoa eman duten pertsonak, ukaezinezko fruituak dakuskite euren bizitzetan; eta horiek ikustean fedea eta erabakitasuna areagotu egiten zaizkie. Horrela, bendizioen zirkulo batean sartzen dira. Orduan harritu egiten dira beste batzuek zer dela eta egiten dioten aurre egia honi, eta nolatan hautatzen duten geratzea lurreko harmonia espiritualetik kanpo, zeinetan bizitzea posible den.

Baldin eta hurrengo orrialdeetan entzuteko, ponderatzeko eta meditatzeke prest bazaude, **hasiko zara ulertzen kreazioaren hasieratik ezkutuan egon dena.**

KONTZIENTZIA ARAZTEN

Arazketa mental/emozionalerako behar den guztia egiten duzun bitartean, erabil itzazu aurreko orrialdeetako ene hitzak, non....**ZU ETA LUR GUZTIA IZATE IKUSGAIK GAUZATZEA EKARRI DUEN HURA** deskribatzen baita, eraikiz joan zaitezten kontzientzia-egoera (ezagutza) bat eta kontaktu bat **HAREN ZERUKO KONTZIENTZIA** ahaltsuarekin. Kontaktu horretatik inspirazioa eta indarra etorriko dira arazketa ahalik eta azkarren egiteko. Arazketa aurrera doan bitartean, zorientasun eta gauzatze berri bat esperimentatuko duzu zure bizitza-arlo bakoitzean.

Jaso ere jasoko dituzu instrukzio inspiratuak zure eguneroko bizitzarako, bai meditazioan zehar bai argi izpi bat bezala gogamenean, bakean eta ohiko kontu batean pentsatzen ari zarenean. Instrukzio hauek baztertzen edo arbuiatzen ez badituzu, baizik eta -zehazki eta kontu handiz- jarraitzen badituzu, zure lehen urratsak egiten ari zure zara arrakasta handiko ideia sortzaileen ereinlari eta uztajasotzaile handi bihurtzeko azkenean zure inguruan. Zurekin harremanetan dagoen guztiak, loratu eta aurrera egingo du. Denak erantzungo dizu eta bedeinkatuko zaitu bizi berriarekin. Diziplinatzen baldin bazara aldatugabeko debozioarekin egunero meditatzeke, halabeharrez, **IZATEA EMAN ZIZUN HAREN** erantzuna eta eragina sentitzen hasiko zara, eta erabiltzen dituzun hitzek beste zentzu bat izanen dute. Hitzak, **BIZI UNIBERTSALAZ** eraginak izango dira.

Alaitasunez beteko zara eta pozez gainezka egongo zara, orduan **JAKINGO DUZULAKO** ahalmena, erreala eta aktiboa dela zure gogamenean eta bizitzan.

Zure gorabeheretan manifestatzen hasiko den ahalmenaren menpe egongo zara gero eta konfiantza handiagoarekin.

Beste pertsona batzuk erakarri nahi izango dituzu zure harmonia-egoera bedeinkatura, zeren somatu egingo baitute eta horretaz galdetu egingo baitizute. Hori ezezik, senitarteko maitasun berri bat ere esperimentatzen ari izango zara, eta gainontzekoekin partekatu nahi izango duzu zoriontsu egiten zaituena.

Inoiz ez da gehiegi izango Egia hau behin eta berriz esatea, mediatu behar izate hau errepikatzea;

zere jende askok utzi egiten baitio bilatzeari eta egunero entzuteko autodiziplinari, kontzientzia erabat araztu baino lehen eta **zure izatearen Iturria den KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREKIN** kontaktu perfektua egiteko hain beharrezkoa den barne-arazketa-egoerara heldu aurretik.

Kontaktua egiten duzunean, giza begiarentzat mirariak diruditen fenomenoak gertatzen dira! Hori Ahalmen Unibertsalaren hasiera da forma hartuz zure ariman, gorputzean, gogamenean, bihotzean eta inguruabarretan. Benetan diotsut nire hitzetan zehazki fida zaitezkeela. Eusten badiozu, zinez kontaktua sentitzen duzun momentua helduko zaizu, eta kontaktua egin duzula jakingo duzu.

Orduan momenturik erabakigarriena erdietsiko duzu zure giza garapen espiritualean!

Ordu batzuetan arima ugari hain igoaraziak eta alaiak sentitzen dira, baina gero eguneroko kontuak sartzen dira euren gogamenetan eta arrazionalizatu egiten dute esperientzia. Giza terminoetan azaltzen dute.

Ez egin hori, bestela eman zaizuna galdu egingo duzu eta!

Atzeratu egingo duzu zure aurrerapena neurri handi batean.

Hitz hauek irakurtzen badituzu eta sinesteko beldur bazara, edo funtsagabeak direla uste baduzu, edo beraietan sinetsiz gero izen ona galduko duzula uste baduzu, zure kontzientzian forma sortzaile bat ekoizten arituko zara; zeinak uko egingo baitio GUTUN hau irakurtzean jatorriz ukan ahal izan duzun edozein erantzun onuragarriari.

Hortaz, zera diotsut: estima itzazu zure fede-uneak, gorde itzazu **IZATEA EMAN ZIZUNAREKIN - 'HAREKIN'** – izandako kontaktu-une bereziak, sinetsi eurretan eta gorde itzazu ziur zure kontzientzian, eta pixkanaka aurrera egingo duzu kontzientzia 'espiritualaren' altuetarantz, sekulako barne-ikuspegi baterantz eta irrika handi baterantz.

Berritot diot: ez baztertu **GUTUN** hauek. Ez da alferrikakoa izango berritot esaten badituzte eurretan pentsatu behar duzula, diotena gogoratu. Gogoratzen ez badituzte, irakur itzazu behin eta berriz, behin eta berriz, behin eta berritot, harik eta zure kontzientzian xurgatuak izan arte.

Zenbat eta gehiago mediatu **GUTUN** hauetan, orduan eta gehiago argituko dira zure gogamenean; eta zuretzat esanahi handiagoa izatera iritsiko dira. Azkenean ikusiko duzu, elikagaia eta edaria bezalakoak izango direla, zure moralara eta erabakitasuna eraikiz, zure gaurko kondizioak harmoniarenean, hazkunde zabalarenean, oparotasunarenean eta bakearenean kondizio bihurtzen laguntzeko.

Sekulako inspirazioa eta alaitasuna zeureak izanen dira, jabetzen zarenean **'IZATEA EMAN ZIZUN HAREN'** neurrigabetasuna estasi goreneko Ahalmen zoriontsu bat dela -Errealitatea dela- amets egiteko eta irudikatzeke duzun gaitasunetik haratago.

BERA, IZATEAREN ITURRIA da – zure mundu natural bizian, eta orain bizi zaren tokitik haratago dauden existentzia-maila askotan dakusazun guztiaren ITURRIA.

Zeruko Kontzientzia ugaritasunez jasotzen ari zarelarik zure gogamenean, zeure baitan, zure existentziaren alderdi bakoitzean, berebiziko ezberdintasuna ikusten hasiko zara, berriz oroitu duzun estres eta ez-zoriontasunezko uneak, eta pixkanaka ikusiko duzu zure bizitzaren mugek amore emango dietela bendizio handiei. **Hori etengabeko prozesu bihurtzen da zure bizitzan. Bihotz bihotzez dakit. Benetan NEU naiz, KRISTO, zugana eta mundu osora iristen ari dena GUTUN hauen Bitartekariaren bidez.**

Bereziki inprimaturik laga nahi dut zure gogamenean aurreko orrialdeetan nahita nola egin ditudan adierazpenak zure pentsamenduak goreneko kontzientzia-maila batera igoarazteko, horrek adierazten duelarik onurak etorriko zaizkizula zure kontzientzia igotzeko lan egiten duzunean 2. orrialdean aipaturiko joera negatiboak desegitearren.

Erabat kontura zaitezen nahi dut zugana etorri naizela gaur egun zure gogamena kontrolatzen duen egoak bultzatutako pentsamendu eta emozio desiraezinak desegiten laguntzera. Bereziki adore emateko eta 'laguntzeko' ere nago hemen; bai, egia esan, zure gogamenean eta bihotzean gara ditzazun laguntzera Zeruko Kontzientziarekin harmonian jarriko zaituzten maitasunean oinarritutako pentsamendu eta emozio guztiak. Nire asmorik premiazkoena eta amultsuena da nik zu ateratzea orain bizi duzun existentziaren itzal grizeetatik, eta iluminazio espiritualaren 'eguzkira' eramatea; zeina zain baituzu ego bulkadak konkistatu eta zure arimarekin eta Aita–Ama –Biziarekin elkarturik egotera heltzen zarenerako, eta sartzen zarenerako guztienganako baldintzagabeko maitasunaren harmonian.

Beraz, 2. orrialdean ipinitako ezaugarri negatiboen zerrenda errepikatu egingo dut. Kontuz irakur ditzazun nahi dut, eta arretaz begiratu zeure erreakzioak eta sentimenduak **poliki poliki birpasatzen dituzun bitartean:**

Kritika, sarkasmoa, epaitzea, arbuizatzea, iraintzea, etsaikeria sortzea, intolerantzia, gorrotoa, maiterreak, oldartzea, bulkada bortitzak, lapurretak, gezurrak, engainuzko harreman bikoitza, difamazioa.

Nola hasiko zara libratzen horietako edozeinetatik, zeintzuk -ondo dakizunez- zure kontzientziaren parte baitira?

Ez lotsatu gehiegi ezaugarri negativo horiei aurre egitean; zeren gizakia baitzara, eta egoaren ezaugarri horien eraginpean jaioa baitzara. Egizu lehen urratsa zuzentasun osoz, eta idaz itzazu!

Bigarren urratsa papera hartzea eta etzan ondoren bular gainean kokatzea da. Itxi begiak eta jo pentsamenduan **Zeruko Errealitatera – zure Izatearen Iturrira, zeina orain onartu behar baituzu zure Sortzaile amultsua dela -zure egiazko 'Aita–Ama Espirituala'- AITA-AMAREN BALDINTZAGABEKO MAITASUNA eskuzabaltasunez eta etengabe eta modu sendoan irradiatzen duena.**

Hartu astia zure gogamena baretzeko, harik eta zure kontzientziatik haratago mugitzen ari zarela sentitu arte.

Gero fede perfektuan eska ezazu laguntza eta itxaron ezazu berehalako erantzuna; zeren **kontzientzian** ari baitzara **egoaren beraren arbuio-bulkada** faltsuak eta behar ez direnak kentzeko, disolbatzeko eta gainditzeko etorkizuneko egun guztietan.

Emozionalki garbi uzten diozu zeure 'Aita Espiritualari' edo 'Zeruko Errealitateari' -eta baita zeure buruari ere- ez dituzula gehiago nahi jarrera negatibo egozentriko horiek zure kontzientzian.

Inspirazioa eta gaitasuna eskatzen dituzu egun horretatik aurrera jarrerak saihesteko eta ukatzeko ahaleginak egin ditzazun.

Hori egitean, **KONTZIENTZIA FORMA BERRI** bat sotzen ari zara, zeina orain hasiko baita zure gaurko kontzientzian sartzen eta bera ordezkaten.

ZURE ASMOA

zure errealitate bihurtzen da.

Zure paperean idatzita dauden aurreko ezaugarri negatiboak, Aita Espiritualari eramandakoak, orain zure kontzientziaren arbuio-linboan daude. Arbuio kontziente hori bidea ere bada, Zeruko Ahalmena zure kontzientziara erakartzeko, zuri erabakia indartzen laguntzeko eta arbuiatutako ezaugarrietatik erupzioa egin dezakeen edozein bulkada ere baztertzen gogorarazteko.

Beraz, seguru asko ikusten duzunez, amore emateak eta meditazioak abian jarri dute kontzientziaren jardura ezkutu bat, zeinatik zu seguru asko inkontzientea izango zara, harik eta gero ezaugarriak desagertu direla konturatu arte.

Benetan, gomendatzen dizut ezaugarrien papera meditazioa eramateko zenbait aldiz. Egiten duzun bakoitzean, **Aita–Ama–Biziaren ahalmenaren** beste injekzio bat erakarriko duzu zeure kontzientziara, kontzientzia -indar eta forma- desiraezinak zure kontzientziatik gainditzeko eta desegiteko duzun helbururako.

Deseginak izaten direnean, jada ez dituzte erakarriko zure inguruabarretara lehen estutzen zintuzten itzal negatibo eta ez-zoriontsuak. Goragoko bide batean ibiliko zara askatasunerantz.

Aurrera egin ahala, huts txikiak somatuko dituzu zure gogamenean eta bihotzean, lehen okerrak ez ziruditenak inoiz ere. Eta hori gertatzen denean, modu berean jokatu behar duzu, hau da, anotatu eta zure fede guztiarekin 'Aita Espiritualari' eraman.

Orain beste gauza bat ere egin behar duzu zure kontzientziaren berrosatzeko.

Kritika, sarkasmoa, epaitzea, arbuiatzea, iraintzea, etsakeria sortzea, intolerantzia, gorrotoa, maiterreak, oldartzea, bulkada bortitzak, lapurretak, gezurrak, engainuzko harreman bikoitza, difamazioa.

Zerrenda horren orde;

paper batean -**urrezko letrekin** ahal bada, atributoei edertasun eta distira zentzua ematearren- idatzi behar dituzu etorkizunean eduki eta adierazi nahi dituzun **Zeruko Kontzientziaren** urrezko kualitateak.

Zure 'Zeruko Errealitatearekin' - zure 'Aita Espiritualarekin' harmonia perfektuan egoteko, atributo bakoitza baldintzagabeko maitasunean oinarritua izanen da, eta gainerako onurarik gorena sustatuko du. Zeren, eta jada ez duzu bestea umilaraztea bilatuko, zeure burua handiagoa eta seguruagoa sentiarazteko. Zure kontzientzia osoa joango da besteak baieztatzerara eta zure inguruan dena eraikitzerara. Zera bilatuko duzu: elikatzea, irakastea, babestea, mantentzea, eta beste batzuen beharrak asetzea, eta maitasunez bilatuko duzu ordena ezartzea ekintza kaotiko eta zentzugabeetan.

Paper batean zure **urrezko gogoak** idatzi ondoren, etzan zaitez berriz eta joan zure '**Zeruko Errealitatera**' eta eska ezazu bulkada ederrak -**Zerukoaren izaera**- emeki emeki hedatzeko zure gogamenetik eta bihotzetik, eta zeure kontzientzia izatera heltzeko. Hori gertatu ondoren, zure arima, eskola mokoka hautsi arte ari den txittoa bezalakoa izango da; zeina, sekulako mundu zoragarriara irtengo baita pazientzia handiz zain duen oilo-amarekin elkartzerara. Horrelaxe izan da nirekin eta gainontzeko arima kristiko guztiekin. Itxaron, begiratu eta laguntzen diogu jendeari, zeinak jakin nahi baitu bere espirituak duen hutsaren zergatia, zeinak bihotzean jarri baitu nahi nagusia bezala lurreko jarduerak gainditzeko; hain zuzen ere, jende horren gogamenak erakarriak izaten ari dira bizitzaren goragoko

asmoetarantz, eta amets egiten dute beren arimekin eta **IZATEAREN ZERUKO ITURRIAREKIN** sintonizazio perfektuan sartzeko. Guk ibiltari espiritual horien existentzia amultsuki irrikatzen dugu, ibiltariak beraiek ere susma lezaketena baino gehiago. Horrek esan nahi du irrika amultsua dugula zugatik, **Gutun** hau irakurtzen ari zaren horrengatik.

Zure Iztearen Iturriarekin elkarturik berriz zaudenean, lortuak izanen dituzu lurrean dituzun benetako helburuak. Betea izango duzu zure benetako misioa betikotasunean. Eta orduan utzizu hasten zeure BIZITZA ERREALARI! Zeruko Erresuman sartuta egongo zara.

Ez dizut esango zein kualitate idatzi zure kontzientzia berrirako; horiek, orain zeuk dituzun gorenako hautemate onenetatik atera behar dira. Berrir, estudiatu **Zeruko Kontzientziaren Zeruko Izaera**, zeina basamortuan argi eta garbi somatu nuen eta **1. GUTUNEAN** deskribatu nuen.

Utzizu **Zeruko Izaerari** zeure izaera izaten.

Jakin dezazun nahi dut bidai hau zinez hasten duzunean, ondoan izango nauzula gertaera guztietan. Nire gogo bizia da zuk jakin dezazun zeurekin nagoela, eta laguntza eta indarra bidaltzen dizudala zure bilaketan **'Zeruko Errealitatearekin'** elkartzeko.

KRISTAUTASUNARI BURUZKOA

Orain kontu mundutarragoez hitz egitekotan nago, eta -zuk hurrengo orriak irakurri bitartean- berrius dezazun nahi dut zer gertatzen zaion zure gogo aldaritari edo ongizate egoerari. Ariketa hau ezagutzeko da zer gertatzen den zure kontzientzian, pentsamenduak aldatu eta hitz multzo berri bat erabiltzen duzun bitartean.

Mesedez, irakur itzazu kontuz hurrengo orrialdeak, kristau-ikasbidea praktikatu edo ez, nahiz eta orriok saltatzeko tentazio handia izan. Idatzi zure erantzunak, ideiak, sentimenduak – batez ere, beheraldi edo atsegin/gozamenezko edozein sentimendu aldakor. Kontuan izan orrialde-zenbakia hitzak hasten direnean zure gogo arintzen eta bake eta zorientasun goragoko maila batera igotzen.

Garrantzi handiko ariketa duzu hau, zeren eta egin ezik 'kontzientziari' buruz irakurtzen jarraituko duzu betiko, baina sekula ez duzu jakingo nolakoa den zure existentziaren, 'materiaren' eta gorputz/inguruaren oinarrizko energiaren ulermen sakona, ezta zure bizitzako gertaeren, zure GOGO ALDARTEAREN, eta gogo espiritualena ere.

Harik eta nabaritu arte 'ideiek eta iritziek' nola igo edo jaitsi ditzaketen zure kontzientziaren bibrazio frekuentziak, ez zara jabetuko KONTZIENTZIA gauza bakarra eta guztia dela zure existentzian eta esperientzian.

Nahi dut zu jabe zaitezen bizitzan egunero darabiltzazun hitzez, hitz horiek sortarazten dizuten bizitza kalitateaz eta besteengan duten eraginaz, bai gogo altxatuz eta bakea eta alaitasuna ekarriz bai deprimiturik eta hutsik utziz.

Are gehiago, benetako asmo zintzoa daukat gaur egun Kristau erlijioari atxikita zaudeten eta, -dogmaren hautematek ateratzeko oztopoak dituzuelarik- iraganeko edo oraingo baldintzapenarekin borrokatzen ari zareten guztiongana iristeko, aske mugi zaitezten goragoko ezagutza espiritual baten bibrazio-frekuentziarik finenen barruan.

Baliteke zuk kondenatua izatearen beldur izatea, baita orri hauek irakurtzeagatik ere; baina hala ere,

erakarmen handia dute zuretzat, eta senez sentitzen duzu **EXISTENTZIAREN EGIAZ** ari zarela irakurtzen, zeina ez baitizute irakatsi zure ministroek. Zu urratzen zara Egia ezagutzeko duzun behar premiatsuaren eta 'Jainkoa' nahigabetzeko beldurraren artean, gaur egun 'BERA' somatzen duzun forma edozein izanda ere.

NI, KRISTO, jabetzen naiz **GUTUN** hauek pertsona zintzo askori eragiten dioten larritasunaz; eta irrikitan nago zuen egonezinean zehar laguntzeko, gogamenean izan arte bake eta alaitasun perfektua.

Horregatik, behar beharrezkoa da lehenbizi Unibertsalaren izaerari eta gizakiaren beraren izaerari buruzko Egia sakonena irakasten jarraitu aurretik, aztertzea zure gaurko sineskerak eta Elizaren doktrinen sorburuak.

Kristau dotrinaren sorburuak erabat ulertzeko, denboran zehar atzera jo beharra daukazu Judaismoaren hastapenetaraino; eta hor giza gogamenaren arrazionalizazioak aurkitu behar dituzu; hots, iturri gertaeraza zela senez sentitzen zuena hitzen bidez zehazten zuen giza gogamenaren arrazionalizazioak aurkitu.

Iraganeko mitoetatik eta sineskera okerretatik libratzeko borrokan ari zaretenok, zuek zeuek nabaritu eta **ulertu** beharra daukazue argi eta garbi zein den 'elizaren sineskeraren' eta orain azaltzen ari natzaizuen **EXISTENTZIAREN EGIAREN** artean dagoen oinarrizko ezberdintasuna. Harik eta zuen gaurko sineskeraren jatorria eta forma bereizi ahal izan arte, ezin izango zarete guztiz libratu Eliza barruan iragandako baldintzapenaren ilusioetatik. 'Oin bat alde bietan' izango duzue eta hori arriskutsua da. Egoera mental horrek sekulako gatazka mentala ekarriko dizu, eta ekar diezazuke bilaketa uztea eta inora ere ez zaramatzaten -erosoak eta emozionalki seguruak diren- forma erlijioso zaharretara itzultzea. Beraz, kontuz ibili; eta ez diezazutela larderia eman 'jainkoa' haserretzeko mehatsuek eta kondenazio posibleren batek.

'SUPER JAINKO BANAKO BATEAN' SINESTEAREN SORBURUAK

Beraz, deskribatzen hasiko gara 'Jainkoagan' sinestearen sorburuak, izen bat -Jainkoa- gauza asko esan nahi izan duena gizateriarentzat. Sineste hori hasi zen antzinako hebrearrak basamortuaren ordokietan zehar ibili zirenean, eta kreazioaren sorburuez galdetu ziotenean euren buruari. **KREAZIOAREN ITURRIA** irudikatu zuten nolabait izan behar zela 'gizon bat – jainko super gizakia' bezalakoa ikusiezina eta guztiz haraindikoa lurretik eta gizateriatik. Antzinako profeta batzuek jakin zuten, era mistikoan, sortzearen iturria hedaturik eta presente -modu batera edo bestera- zegoela kreazioan zehar eta halaber dimentsio betierekoan ere bazegoela; baina mistizismo hori ez zegoen giza gogamen arruntaren esku.

Ulertu ere ulertu behar duzu Biblian irakurri duzunaren arabera 'Jainko' baten 'ustezko errealitatea' izan arren -zure gogamenean-, inork ez duela inoiz begiztatu halako 'super gizakia / gizon jainkoa' inola ere, beharbada Moisesek izan ezik; zeinak zioen sutan 'erretzen ari zen zuhaixka' batean ikusi ZUELA, eta BERE BURUA deskribatu zuela esanez: 'Ni Naizena Naiz'.

Aipatu 'jainko super gizakiaz' jakin den guztia, profetek lurreko egonaldian emandako 'Jainkoaren' deskribapen pintorezkoen irakurketetatik atera da. Horrek argi eta garbi erakusten du zer ilusorioak diren sineskera erlijiosoak zeren eta antzinakoengana soilik jotzen baitute ministroek euren 'egia' aipatzeko; ezin dutelako sinetsi 'Jainkoa' benetan erreala eta betierekoa dela, eta era berean garai honetako gaurko

egunetan jendeari hitz egiteko gai dela.

Zure ministroek beldur diote antzinakoekin bat egiten ez duen edozein sinesmeni. Inoiz ez dute haintzat hartzen -edo haintzat hartzeko beldur dira- menturaz lur dimentsioan den ezagutza espirituala ebolutiboa dela!

‘Ikus dezazun’ nahi dut ‘sineska-ehun’ bat, arrazionalizazioen eta sineskeren nahasketa bat, bilbatua izan dela segurtasun mental/emozional sare bat egiteko, zeinarekin jendearen gogamenak eta bihotzak nahastu eta harrapatu egiten baitira. Kristau fedean jendeari irakasten zaion guztia emozioan oinarritzen da, eta jatorria du lurreko nire bizitzaren eta heriotzaren lehen kontakizunetan entzundako gauzetan. Hala eta guztiz ere, fanatismoz sinesten dira.

Kristauei ‘Jainkoa Maitasuna dela irakasten zaie, eta Jainkoa zuen bekatuen jabe dela, eta zintzoak zigortu, diziplinatu eta saritu egiten dituela eta gaiztoei zoritxarra bidaltzen diela’. Hori, giza jardueraren eta Kontzientziaren deskribapen zehatza da!

Kristauei irakasten zaie **Ni, Kristo**, Jesusen pertsonagan ‘munduko bekatuengatik hil nintzela’. ‘Orbanik gabeko Jainkoaren bildotsa jendearen bekatuaren prezioa ordaintzeko sakrifikatua’ izan omen nintzen ni! Ene buruaren sakrifizio gorena egin omen nuen, garaietan zehar ‘bekatuagatik ordaintzeko’ azaina bitxi hori betetzeko.

Gurutzilketaren ondoren, gorputzean sartu omen nintzen berriz ere, eta gorputzez askotan agertu omen nintzen doluan zeuden dizpuluak ene bihotza emateko eta irakasteko. Haien aurrean agertu nintzelarik, janaria ere hartu omen nuen.

Berrogei egun igaro ondoren, dizipuluen begien bistatik kanpo igo omen nintzen, nire gorputza ‘zerura’ abiatuz.

3. GUTUNEAN galdetu nuen bezala: zer egingo nuen nik giza gorputz batekin ‘zeruan’, haratagoko bizitzan?

Nire azken afarian esan nuen ezen dizipuluek, nik berekin egindako azken otordua gogoratu behar zutela ogia zatituz, bata besteari pasatuz eta bakoitzak ardo kopa beretik edanez, eta gogoratu ere gogoratu behar zutela nire gorputza gurutzilkatua eta nire odola isuria izango zela **izatearen egia** ekartzearen. Eta hori guztia esan nuelako, gorabehera hori oso sineskera bitxi bihurtu zen, zeinetan -aldarean zeremonia hotsandi handiz eta guzti- nire gorputza ostietara transferitua den, jaunartzaileek begirune handiz irentsi behar dutelarik.

Nire gorputzak! Zer onura ekarriko lioke nire ‘gorputzak’ -espiritualizatua edo ez- jaunartzaileari?

Ikus al dezakezu gogamena nola izan daitekeen baldintzatua ia bi mila urte iraun dezaketen lelokeria ilogikoak onartzera, “Aita Santuaren” eta Kardenalen Jerarkia itzelak babestuak izan direlako? Hain zuzen ere, “Aita Santua” eta Kardenal horiek jauregietan bizi dira sekulako aberastasuna daukatela, eta mantenuak dira lurreko hotsandietan eta izen handiko inguruabar zeremoniosoetan.

Egia jakin dezazun nahi dut zoritxarreko gau horretaz, Azken Afaria deitzen duzunaz. Nahiz eta hori egitea mingarria izan, argitasun handiagoa emate aldera jaitsi naiz dizipuluekin nik eginiko azken otorduan izan nituen pentsamendu eta sentimenduen oroitzapen kontzienteen bibrazio frekuentzietaraino, bertaraino.

Nahiz eta ni gizon sendoa, iluminatua izan eta ziur egon ekidin ezin nuen destino bat nuela

betetzeko -ez nuen saihestu nahi izan-, guztiz minduta nengoen afaltzen hastean -Paskuako afarian-. Dizipuluak nire adiskideak izan ziren, eta ni eurek babestua izan nintzen inguruabar zail batzuetan. Triste nengoen eurak utzi behar izateagatik, eta beren ongizatearen beldur ere bai. Zer gertatuko ote zitzaien bakarrik aurkitzean nire orientazio eta babesik gabe? Nire menpe egon ziren zekitena baino gehiago. Jendeari irakasten igarotako urteak gogoratu nituen. Ironia-zirrara sakona sentitu nuen basamortutik itzultzea gogoratzean – zikin, narras, baina nire lagun hurkoen aldeko ene ardura alaiak hitzez hitz hartuta eta biziki ilusionatuta, zeren orduan zuzen bideratu ahal nituen, existentziari buruzko egia ezarri beren gogamenetan, beren beldurrak, gaixotasunak, pobrezia eta miseria nola gainditu irakatsi,... Mundua konkistatu egingo nuen!

Baina, dena oso bestelakoa izango zen gero! Hurrengo egunean gurutzetik eskegiko ninduten! Hala ere, egia esan, sekulako arrakasta lortu nuen. Hausnartu nuen sendatze momentuez eta jendeak 'Aita Amultsua' alaitasunez onartu izanaz. Ulertzen nuen zergatik gorrotatzen ninduten Apaizburuek eta Kontseiluak. Beldurraren, zigorraren, eta animaliak sakrifikatzearen orde, 'AITA – MAITASUNAREN' errealitatea ekarri nion jendeari. Eta erakutsi ere erakutsi nien kasu terminalak sendatzean.

Arreta berriz jarri nuen dizipuluengan, jan bitartean hitz egiten ari zirelarik. Oraindik ez ziren jabetzen nik zain neukan erronkaz, gurutzilketaz, alegia. Ohartarazi banituen ere, nire hitzak ez zituzten egiatzat onartu. Apaizburuari beldur niola pentsatu zuten, eta zergatik ote galdetzen zuten.

Lehenago ere lortua nuen mehatxuzko egoeretatik ateratzea.

Paskuan ohitura zenez, israeldarrek Egiptotik egin omen zuten ihesaren inguruko gertakizunez hitz egiten zuten. Juan, oso irudimen handikoa bera, zehazki honako kontakizun bitxi hau ari zen egiten: Moisesek israeldarrak bidu zituen eta esan zien azkenean Egiptotik alde egingo zutela esklabotasun bizimodutik askatasun aldera ihes eginez basamortuan! Hor familia buru bakoitzari esan zion orbanik gabeko bildotsa hiltzeko eta haren odolarekin eskutada bat belarrez etxearen ateburuan pintatzeko. Moisesek esan zuen aingeru batzuk gauez, hegaz, etorriko zirela, eta Egipto zeharkatuz egipziar guztien oinordekoak eta beren ganadua hilko zituztela. Israeldarren oinordekoak libratu egingo ziren ateburuetako odolagatik. Gertaera 'miragarri' horretaz irripartsu eta buruaz baietz esanez ikusten eta entzuten nituen bitartean, estu eta larri konturatu nintzen benetan zer gutxi ulertzen zuten 'Zeruko Aitaren' ene deskribapenaz.

Odola aipatzen zuten Juanen hitzak entzun nituen: Odola, odola, odola, orbanik gabeko bildotsaren odola, ateburuetako odola, haur eta ganadu egipziarren odola. Beti bezala, juduek odolagatik erakutsitako mendeetako kezka zela eta, harritu egin nintzen; eta labur labur gogoratu nuen Abraham bere seme bakarra hiltzeko prest egon zela sakrifizioan eskaintzeko asmoarekin, Jainkoak hori egiteko esan ziola uste zuelako. Eta gero, tenpluko eguneroko animalien sakrifizioetan gogoetatu nuen. Niretzat, 'bekatua' ordaintzeko moduko 'odola jariatzearen' kontzeptua, benetan zen higuin garria.

Baina isilik geratu nintzen eta ez nuen gizonekin eztabaidatu. Konturatu nintzen beren gogamenak tradizio horietaz beteta zeudela, harkaitza bezain solidoak eta iraunkorrak ziren

tradizioez, alegia. Horixe izan zen gure arteko azken afaria, mahai inguruan denok batera egin genuen azken otordua. Horrek izan behar zuen gure arteko bakeunea eta maitasunezko agurtzea. Bi aldiz transzendentala nire dizipulentzat, Paskua euren judutar gogamenentzat oso gertaera sakratua zelako; eta hori onartu beharko nuen -maitasun eta ulerkuntza- espirituan.

Lehen ez neukan Paskua ospatua, tradizioak gaixorik jartzen ninduelako. Nahiago nuen muinoetan barneratu lasai meditatzeke, nire dizipuluak utzita Paskua euren familiekin ospatzen. Aurreko nire jokabideak zirela medio, ez ziren nire isiltasunaz harritu.

Orduan, erdi etzanda, erdi eserita nengoen, egin ohi nuen bezala erlaxatu ezinik; tenkaturik, asaldaturik, adeitsu eta gupidatsu nire dizipuluekin, hala ere nahigabeturik eurengandik.

Neure buruari galdetzen nion nola utzi ahal nien jarraitzaile logaletu eta nahasi horiei seinale eraginkor bat oroigarri gisa gogorarazteko; hau da, errituren bat euren gogamen nahasietara berriz ekartzeko irakasten saiatu nintzen guztia. Astindu nahi nituen eta zuten odol-zalekeriatik atera nahi nituen. Moisesi buruz eta horren jarduera miragarriez hitz egiten entzuten nien bitartean, otu zitzaidan odolagatik hain kezkatuta baldin bazeuden, ba, odola emango niela, horrexen bidez nitaz gogoratzeko.

Mahai gainera makurtu, ogia hartu eta zatitu egin nuen, eta zera esan nuen bortizki samar: 'Zuen Paskua-bildotsa bezalakoa naiz. Pasaiozue ondokoari, hartu nork bere zatia, jan eta egizue hori ni gogoratzeko; zeren munduak entzun duen EGIA bakarra ekarri baitizuet. Ogi honi utziozue nire gorputzaren ikur izaten, zeina laster hautsia izanen den gurutzean.'

Hitz egiteari utzi eta irmo begiratu zidaten. 'Ea, jan ezazue!' esan nien.

Amets batean bezala ogi zati bat lasai hartu eta batak besteari pasa, pixka bat murtxikatuz jan zuten.

Gero ardo kopa handia hartu nuen eta pittin bat edateko eta elkarri pasatzeko esan nien.

Ardo hau ene odolaren ikurra da. Zuei EGIA ekartzera etorri nintzen. Jainkoari buruzko Egia, biziari buruzko Egia. Baina arbuiatua izan naiz. Nire odola isuria izanen da zuen alde.

Berriro, isil isilik kopatik edan eta ondokoari pasatu zioten. Aurpegi tenkatuak zituzten, baina ez zuten deus erran. Agerikoa zen denak hunkiturik zeudela nire hitzengatik eta ez zituztela gogoko.

Banekien Judasi dirua eman ziotela ni neu Apaizburuaren soldaduei seinalatzeko une egokia izango zenerako. Jakin ere banekien, Paskuako gaua izango zela gaua. Judasi esan nion: 'Hoa agudo egin behar duana egitera!'

Judasek luze begiratu zidan, eta mina eta ezbaia ikusi nituen bere begietan. Zalantzan zegoen, baina iritsia zen nire ordua, eta nik behin betiko bukatu nahi nuen horrekin. 'Hoa!' esan nion gogor. Judasek altxatu eta alde egin zuen gelatik.

Dizipuluak harrিতuta zeuden hitz egiten nuen moduagatik eta galdetu zuten ea Judasek zer egin behar zuen.

'Apaizburuarenera, ni non aurkituko nauen esatera!' Gurutzean hil egingo naute zehazki esan dizuedan bezalaxe.

Euren aurpegietan zenbait aurpegiera ikusi nituen: zalantza, izu-ikara, beldurra, zinismo mingarri pixka batekin. Gero erresuminez egindako galdera bidezko oldar bat egon zen. Zer gertatuko ote

zitzaien? Bizitokia eta familia nigatik utziak zituzten. Askatasun eta segurtasuneko bizimodu bat galduko zuten, baldin eta ni delitugile arruntzat gurutzilkatua izaten banintzen. Abandonatu egingo nindutela esan nien. Suharki ukatu zuten hori, baina halaxe egin zuten.

Nekatuegi nengoen dizipuluekin eztabaidatzeko; eta uneoro 'Aita' nire baitan -eta nirekin-zegoelako ezagutzen hain indartsu eta hain seguru nengoen, ezen beren desleialtasuna barka bainezakeen. Eta, azkenean, nire gorputzetik askatua izango nintzen eta igo nintekeen maiz sentitu nituen Argiaren erresumetara, baina inoiz ikusi ez nituenak erabat lurreko ikuspegiarekin. Pentsamendu horrek pozbide sakona eta ikusminezko zirrara zoriontsu bat zekarkidan.

Beraz irribarre egin nien eta esan nien: 'Ondo dago eskatu dizuedana egin izana, nire omenez eta etorriko zaidan heriotzaren omenez!' Segi ezazue ogia zatitzen eta ardoa edaten elkarrekin, gogoratuz beti maite izan zaituztedala eta espirituan zuekin geratuko naizela, harik eta zuek nirekin elkartu arte orain joan eta gero egongo naizen tokian. Ez izan beldur, gidatuak izango zarete, inspiratuak izango zarete eta ahots argiz hitz egingo duzue -argi eta garbi-.

Hauxe duzue ene ohar bakarra: etorkizunean ahaztu egingo da nik zuei irakatsitako gauza asko. Nik esandako gauza asko giza pentsatzeak baztertua edo giza mitoek distortsionatua izango da. Gero izua zabaldu zen eta ozenki entzun zen: 'Nola izango ote da hori?'

Irribarre egin eta eskuak jaso nituen: 'Urruneko etorkizunean zer gertatuko den esan dizuet. Bitartean, izan zaitezte leialak irakatsi dizuedan guztiari, eta ez izan zalantzarik esan dizuedan hitz batean ere.'

Gero bazen joateko ordua Olibondoen mendira, haraxe joango ziren nire bila Apaizburuaren soldaduak.

Dizipuluek galdera gehiago egin nahi zidaten, baina jada amaituta zegoen nire solasa gizakiekin. Erabateko isiltasunean neure burua prestatu baino ez nuen nahi sufrikariorako, espirituan mugituz 'Aitarekin' seguruak eta sendoak ziren sintonizazio eta komunikazio egoera batera. Lorategira joan ginen eta ene gogokoena zen harkaitzera erretiratu nintzen. Haizetik babesturik, eseri eta tunikan bildu nintzen. Begiak itxi nituen eta sentitu nuen pixkanaka sartzen ari nintzela espirituzko barne-baretasun handian eta isiltasun ahaltsuan. Gero Ahalmena bera jaitsi zen, besarkatu ninduen, eta nire gogamena eta bihotza bereganatu zituen. Halako maitasun gorenaz bete ninduen, ezen jakin bainuen maitasunean lagundua eta eutsia izaten ari nintzela, eta nire maitasuna gorde nezakeela guztientzat, niri zer gertatuko zitzaidan axola gabe. Horrexek zuen axola guztia une horretan, zeinetan nire ordua heldua baitzen.

Horixe da, nire bizitzaren eta irakaspenen omenez ogia zatitzearen eta ardoa edatearen atzean dagoen egia. Eta zuk, GUTUN hau irakurtzen ari zaren horrek dakizunez, 'Aitak' lurrean azken gauean jakinarazi zidan guztia, gertatu egin zen.

Nik 'Aitaz', 'Semeaz' eta 'Espiritu Santuaz' hitz egiten nuelako, Nizeako Kontzilioan Elizak erabaki zuen 'Hiru Pertsona Batean' aipatuko nuela. Beraz, jendeak otoitz egiten dio 'Aitari' onurak eskatzeko, 'Espiritu Santuari' erregutzen dio espiritualki irakatsi dezan, eta 'Semeari' otoitz egiten dio bekatuetatik salba dezan.

Hasi al zara 'ikusten' sineskera horiek guztiz 'lur eta gizatasunaren arabera sortuak' direla?

Eta ikusten al duzu oso 'oinarri emozional handioak' direla?

'Salbatzailearen atzetik orpoz orpo zerura joateko doako bidaiaren promesagatik eta sentimentaltasunagatik', sineskerak gizatasunaren arabera sortutako erlijio-egitura izatera iritsi dira, elizaren inperio bat tronuan jartzeko lurreko inperioen barruan -Erroma, Austria, Espainia-. Aitzaki ederra izan dira horiek tortura sistematikorako, sutan hiltzeko eta disidenteak exekutatzeko. Sineskera berberak eragin dituzte nazioen arteko gerrak.

Baina, sineskera batzuek ekarri dituzten 'hautemate espiritualak' eta 'sormenak' ere asko lagundu diote existentziari iraganeko bi milurteetan.

Sineskera horiengatik eraiki dira katedralak eta elizak, monastegiak eta konbentuak, pertsonen helburu egonkorra emanez, batzuei dohai artistikoak adierazteko trebetasuna emanez, eta beste batzuei -dohai gutxiago dituztenei- lana emanez. Sineskerak milioika pertsonaren kontzientzia bideratu ere egin dute maitasun eta pentsamendu ederren goreneko erresumetarantz. Sineskerak ere bultzada izan dira mistizismoaren eta iluminazioaren atzean, arima espiritualak ikustera heldu direnean, beren sineskerak aurrez ezkutatua zegoen Errealitatea.

Aurreko hori gertatu bitartean, sineskerak ere baldintzak sortu dituzte garatzeko erlijio nagusitasun-mailak eta handitasuna eta sekulako aberastasun neurtezina. Sineskera horiek, egoaren bulkadekin hasitako eta sortutako giza eraikinak dira, eta beraz guztiz ez-legezkoak dira ikuspegi espiritualetik.

'BEKATUARI' BURUZKO EGIA

Ulertu ere ulertu beharra dago jendeak mendeetan zehar nabaritzen zuela giza jokabidearen alderdi batzuk kaltegarriak zirela besteen ongizaterako. Erahilketen, eta emakumeak eta jabegoak lapurtzearen lekukoak ziren; eta horrek samina eta nahigabea eragiten zuten komunitatean, bizimodua zailduz eta batzuetan jasanezin bihurtuz. Arrazoitu zen jokabide hori, seguraski, 'Jainko' deitzen zuten haren aurkakoa izan behar zuela. Jokabide horri 'bekatu' izena ezarri zioten eta 'gaiztakeria' deitu zitzaion. Denborak aurrera egin ahala, profetek arrazoitu zuten jokabide zentzugabe hori Jainkoaren aurkako indar 'gaizto' batetik etorri behar zuela, eta 'Satanas' izendatu zuten.

Mehatxatu eta zigorrak ezarri zizkioten batzuek besteei, 'bekatuak' txarrak zirelako ustean, eta Jainkoak -elkarri egindako gaiztakeriengatik- gizakiak zigortuko zituelako sineskeran. Jokabide hori gaur egun arte praktikatzen da elizetan. Ministroak, izuaren bidez, jendea kontrolatzen saiatzen dira.

Betiereko eta mugagabeko Sortzaile Ahaltzua-Jhovaren aurkako **'BEKATUAREN' KONTZEPTUA**, gainontzekoak kontrolatzeko metodo bikaina eta indartsua zen. Elizaren sineskerak, nik Palestinan jendeari irakasten ahalegindu nintzen guztiaren fartsa tragikoa dira.

Moisesek lehenengo konsagratu zuen 'bekatuan' eta 'zigorreen' sinestea Hamar Aginduekin. Moisesek esan zuen 'Jainkoak' eman zizkiola, eta israeldarrek hausten bazituzten zigorra pairatu beharko zutela, batzuetan horrek harrika hiltzea esan nahi zuen. Irakatsi zitzaion Legeak haustean, israeldarrak beren 'Jainkoaren' aurka bekatuan arituko zirela.

Moises mendira otoitz egitera joan zen, israeldar bihurriak kontrolatzeko modu bat eskatzera. Horixe da egia zehatza! Otoitzari erantzunez, Hamar Aginduak eman zitzaizkion, era inspiratuan eman ere; desertuan zehar ahalik eta iskanbila gutxienarekin, israeldarrak arriskurik gabe zuzentzeko zereginean laguntzeko.

Erlijiozaleek onartzen dute eta bihotz bihotzez sinesten dute Jainko batengan, zeinak Moisesi instrukzioak eman omen baitzizkion prozesu erasotzaileak eta triskantzak ezartzeko 'hitz emandako lurra' konkistatzean. Lur eder eta emankorra erruki gabe kendua izan zitzaion langile jendeari; hain zuzen, milaka erahilketa jasan zuen jendeari. Kontuan hartu zen hori, egin behar izan zuten gauza zuzena zela, zeren 'Jainkoak' hitz eman baitzien bizitzeko lur bikaina izango zutela. Gaur egun arte, erlijiozaleek uste izan dute, 'Jainkoak' Moisesekin hitz egin omen zuenez, 'Jainkoak' berak aginduko zuela ondorengo odol-isurketa. Gerra eta odol-isurketaren antza handia duten izugarritzko deskribapen asko dago zuen Biblian onargarritzat -zuzenak eta egokiak- jotzen direnak, 'Jainkoak' agindu omen zielako jentileen aurkako gerrara joateko.

Ez al dakusazu juduen historian **EGOAREN BULKADA** zoroa, zeinetan 'Jainkoa' ere erabiltzen baita juduak eurak erru guztietatik salbuesteko? Buru-handiagotze unean onargarritzat eta bidezkotzat jo zen hamar aginduak alde batera uztea eta triskantza sistematikoari ekitea. Bekaturik ez zuela ekarriko uste izan zuten, sarraskia 'Jainkoak' berak agindutakoa zelako. 'Jainkoa', halakoa!

Ez al duzu nabaritzen zergatik zen beharrezkoa ni Palestinan jaiotzea, judu artean bizitzeko eta euren sineskera eta praktika tradizionalak den-denak, -izatea eman zien- **ZERUKO KONTZIENTZIAREN Izatearen** aurkakoak zirela ikusten laguntzeko?

Geroztik, mendeetan zehar, gizakiak borrokan ibili dira 'bekatuaren' konzeptuarekin, eta jende zintzo asko larritu egin da 'Jainkoa' iraintzeko duen eta barkamena eskatzeko duen moduagatik. Aspaldian animalia anitz sakrifikatu zituzten Jerusalemgo tenpluan 'Jainkoa' baretzeko, horrela beren bekatuen eraginetik ihes egingo zutelakoan. Garai horretatik aurrera, liburu anitz izan dira idatziak gaiaz. Liburuotan nahigabea eta laztura adierazi dute gizakien arimaren egoeragatik, beren jokabidea aldatzeko moduak bilatuz, nor bere burua zaharoen bidez zigortuz haragia torturatzeko eta haragiari berari pentsamendu, hitz edo ekintzaren gaiztakeriagatik ordainarazteko; eta liburu horietako asko 'Kristauek' txalotuak izan dira Europa guztian zehar, eta erlijio-erakundeetako artxiboetan gordeak.

Haiek jendea nire antzinako pertsonari, 'Jesusi', lotzen diote, eta predikatzen dute 'gizakia bere bekatuengatik izandako zigorretik salbatzen dela' nire gurutzilketaren bitartez. Beste atal batean azaldu dudanez, sineskera horiek fisikoki ezinezkoak dira, eta kreazioaren egintzen aurkakoak dira. Goreneko inongo 'Jainkok' ez du inolako ordainik eskatzen 'bekatu' egiteagatik. Kontzeptu hori erabat gizatiarra eta paganoa da. Edozein motatako odol-isurketa, erlijio-errituak egiteko helburua duena, paganismoa da. Eliza kristauak, zer eta paganismoaren bertsio 'aintzatua' aurkeztu die bere jarraitzaileei.

Jendeak, gainerakoak era batera edo bestera ez-zoriontsu egiten dituenean, berari 'itzuliko zaion' etorkizuna sortzen du. Ez ordainketa bezala, sortzearen kontzientziaren jarduera bat bezala baizik.

Beraz, premia handikoa da 'bekatuan' eta 'nire gurutzilketarengatik salbazioan' dauden sineskera hauei aurka egitea biziki, eta **GUTUN** hauetan ematen zaizun ulerkuntza espiritualak ordezkatzeko.

Erljio-doktrinen gai honetaz aritzeari utzi aurretik, argi eta garbi azaldu nahi dut Eliza Kristau barneko bilatzaile espiritual batzuek, denboran zehar, kontzientzia nahikoa arastu dutela 'Jainko' esaten dioten '**Ahalmenaren**' guztiz kontzienteak izateko beste, eta jakitea lortu dutela '**Izatearen Iturria**' ez dela Elizak irakasten duena bezalakoa. Baina gutxi batzuek lortu dute espiritualki nahikoa eboluzionaturik egotea, erlijio-sineskeren parametroetatik haratago ibiltzeko eta Ahalmenaren eragina sentitu ahal

izateko, zeren eta jende gehienak Egia lur eremuaren terminologian baino ezin du ulertu.

NIK, KRISTOK, esan behar dizut egundaino 'santu' guztien artetik inork ere ez duela begiztatu kreazioaren errealitatea, ezta giza jokabidearen atzean den egia ere, ni orain aurkezten ari natzaizun bezala.

Ezpairik gabe zuri egia esateko ordua heldu da: 'bekatuarekiko' eta giza jokabidearekiko egia, eta gaur egun jendea munduari eta bere buruari ere zer egiten ari zaion jakin beharra daukazu, baldin eta alde batera utzi badituzu erabat erlijio-doktrinaren antzinako mitoak, eta gaur gogoberoturik, harkor eta gustu handiz baldin bazaude bihotza guztiz irekitzen duzularik existentziaren errealitateetara. Gauza horietako ezer ez bazara, orduan esan behar dudanak ez du inolako zentzurik izango zuretzat.

Sinetsidazu, ezin dituzu nahasi zure erlijio-sineskera zaharrak **Existentziaren Egiarekin**. Horretan saiatzen bazara, ziur egon ez duzula **Egia** ikusiko, baizik eta orrialde hauekin irabazi duzula uste duzunaren egokitzapena.

Existentziaren Egiaren bila jarraitzen baduzu baina zatitutako uste-egoera batean geratzen bazara, izan liteke zuk bilatzen jarraitzea zuretzat kostu handia izanik, urraturik; hots, zalantzak, beldurrak, eta irakaspen berriaren benetako esanahia jasotzeko etengabeko ezgaitasunak urraturik. Zure hautemateak -gero eta garatuagoak- zure gogamen kontziente eta azpikontzientearen baldintzapen zaharretik sortuko diren 'mezuek' erdi-ilunduko dituzte. Baliteke une horretan zu ez konturatzea arazo horren handitasunaz, baina sekulako arazoa da, zeren zure gaurko sineskera sakonak zure gaurko egia baitira zuretzat, zeinaren gainean bizitza eraikitzen duzun. **Zure** errealitatea dira. Biziki errotutako zure uste sendoak eta sineskerak zeharo irudipenezkoak izan daitezke, baina zuk azpikontzientean oso-osorik sinesten badituzu, guztiz errealak egiten dira zuretzat. Ez du axola zenbateko erakargarritasuna izan dezakeen zure arretarako zure sinesmenak gezurtatzen dituen edozein ideia berrik; zure kontzientzia erdibiturik egongo da, eta izugarritzko ondoeza emango dizu, baita larritasuna ere.

Gogoratu! Zure kontzientzia, bizitza lantzeko erabiltzen duzun ehuna da.

Zure bizitza mental, emozional, eta fisikoan gertatzen den gauza bakoitzari ematen diozun erantzun bakoitzaren hondoa duzu kontzientziaren ehun hori. **Zure** kontzientzia **zeure** errealitatea da. Baieztapen hau bi modutan adieraz daiteke, biak zure existentziaren egia izanik.

Zure kontzientziak zeure errealitatea sortzen du, lurreko zure egintzak zein diren kontuan hartu gabe. Jendeak uste zuenean lurra laua zela, beldur zion ozeanoan urrutiegira abenturatzeari, itsasontzia itsasertzetik eroriko zelakoan. Lur lauean sinesten zuen jendea, sineskera haren arabera bizi zen.

Galileo, lurra borobila zela esan zuenean heretikotzat jo zuten; baina 'lurraren borobiltasunaz' zuen pertzepzioak zera ekarri zuen: marinelek munduaren ikuspegi berria izatea, eta ozeanoaz bestaldera zer zegoen aurkitzeko bidaiei ekitea. Hori egin ahal izateko, euren sineskera aldatzea beharrezkoa izan zen.

Zu antzeko egoera batean zaude **GUTUN** hauekiko. Baztertu eta irrigarri uzten dituztenak lur lauean sinesten zuten pertsonak bezalakoak dira. Haiek, baldin eta beren inguru ezagunetik ekialderantz edo mendebalderantz urrutiegi itsastatzen bazuten, beldur ziren ez ote ziren itsasertzean eroriko. Euren ortzimugak, zituzten sineskeriek mugatuta zeuden erabat. Halaber, mundua solidoa dela uste dutenen ortzimugak ere zorrozki murriztuta daude. Eguna joan eta eguna etorri, arrenkuratu eta nahigabetzen dira mundu gainera erori diren zoritxarreatik, eta uste dute ez dagoela inolako ihesbiderik.

Baina gaur munduan aurkezten ari naizen Kontzientziaren Egia ulertu eta horri ongietorria eman ahal dioten pertsonak, bidaiari ekiteko borondatea izanez gero ozeanoetan barna bidaiatzea mugarik gabe eta norabide guztietan lor zitekeela nabaritzen zutenak bezalakoak dira. Beraz, zure kontzientziaren egoera, kontuan hartu behar duzun gauzarik garrantzitsuena da bizitzan. Begiraiozu arretaz kontzientziari, eta bedeinkazioak etorriko zaizkizu bizitzaren arlo guztietan.

Zure kontzientziaren bidez, barne-maitasunez, harmoniaz, alaitasunez eta edertasunez elikatzen zara, baita beheaz batego kalezuloetan ere. Halako kontzientziarekin ikusiko duzu mugiarazia izango zarela auzo horretako kaleetatik zure barne-izatearekin bat datorren inguru egokiago batera. Horrelaxe ateratzen zara inguruabar ezatseginetatik.

Lehen aipatutakotik orain ikusi beharko zenuke, zeuk baino ez duzula sortzen zure barne-munduaren kalitatea, nahiz eta kanpoaldetik espetxean edo guduontzi baten agintean egon! Eta zuk zeure ingurua nabarmendu ahal duzu, zure pentsatzea animatzen duen bizi-indarrarekin irradiatuz.

Eta berriz ere; zure **kontzientzia** zeure errealitatea da, ez zure senarra edo emaztea, ez zure seme-alabak, bizitokia, lorategia, jabetzak, tituloak, lantokia, lagunak edo adiskideak. Zeren eta, zure kontzientzian zure jendeak eta jabetzek hartzen duten tokia -ona edo txarra- edozein izanik ere, toki hori zuk horiez duzun hautematea baino ez da. Pertsona horien errealitatea inork ez du ezagutzen. Inork ez du sarbiderik itxura negatibodun izaera batean ezkutuan den jatorrizko ontasunera. Alderantziz, inork ezin ditu susmatu itxuraz ona den gizaki baten bulkada eta nahi ezkutuak. Zure kanpoaldeko bizitzak, eragin baino ez du egiten zure kontzientzian. Ez du sortzen, ezin ditu zure erantzun kontzienteak sortu edo erabaki. Zeu zara, zure erantzunen sortzailea. Zure kreazio mota, existentziaz dituzun hautemate eta sineskera sakonenen menpe dago guztiz.

Are gehiago, edozein unetan aukera dezakezu zure aurreko barne-mundua pixkanaka desegitea, gero eta barne-erresuma harmoniatsuagoa, maitasun handiagokoa, biziagoa eta alaiagoa eraikitzearen; kanpoko 'objetuak' -pertsonak edo jabetzak- berberak izan arren. 'Zure kontzientziaren ehunaren' ahalmen espiritualak kanpo aldera irradiatuko du eta zure inguruko jendeak, landareek, adreiluek eta zementuak xurgatuko dute. Behin betiko aldaketak eta hobekuntzak egongo dira zure barne-eremuan dagoen guztian. Zure helburua da bizitza honetan -eta etorkizuneko bizitzetan- erabateko errealizazio honetara heltzea. Lortzen duzunean, oina auto-maisutasunaren bidean jarriko duzu, eta gero pixkanaka aurrera egingo duzu, zure giza kontzientziaren munduan benetako maisu edo maistra izateko, **ZERUKO KONTZIENTZIAK** barneratua eta lagundua. **NIK, KRISTOK, GUTUN** hau gomendatzen dizut. Kreazioaren egintza garrantzitsu batzuk erabat jakinarazi dizkizut; horiek gainditzen utziko dizute zure banakotasunaren zaindaria den egoa, eta itzultzen utziko dizute zure jatorria den **IZATEAREN UNIBERTSALITATERA**. Zure eskuetan dituzu **Baldintzagabeko Maitasunean, Alaitasunean eta Errealizazio Pertsonalean sartu ahal izateko bitartekoak**. Gogoratu esan dudala ibiltariaren aurrerabide espirituala irrikatzen dudala. Marratzu dizudan bidetik aurrera egin ahala, zure ibilaldian benetan zurekin nagoela baieztatzen duten uneak izanen dira. Ikusi egingo dituzu, gorde sinesmena une horietan! Une oro Zeruko Maitasunean sostengatzen zaitut, neu naizelako Zeruko Maitasuna jardunean. Sinetsi hau eta aurki ezazu atsedena inguratzen zaituen ene kontzientzian.